



JAURLARITZAREN JARDUTEKO I. PLANA, GENERO- INDARKERIAREN KONTRA

AURKIBIDEA



I. PLANTEAMENDU	OBJEKTIBOA.	PROGRAMAKO	ORR.
ERREFERENTEAK			2
II. EGOERAREN DIAGNOSIA ETA TESTUINGURUA			8
II.1. Genero-indarkeriagatik EAEn hildako emakumeak			11
II.2. Genero-indarkeriak EAEn eragindako emakumeen biktimizazioak eta emakume biktimak			12
II.3. Genero-indarkeriagatik EAEn jarritako salaketak eta salaketak jarri dituzten emakumeak			14 15
II.4. Beste datu batzuk			15
II.5. Bilakaera (2002-2009)			
III. JARDUERA-ARLOAK, ESKUMEN-EREMUA ETA FUNTZIOEN ERREFERENTZIAZKO ESPARRU JURIDIKOA			17
III.1. Jarduera-arloak eta eskumen-eremua			17
III.2. Erreferentziazko esparru juridikoa			22
III.3. Planaren eragina araudietan			26
IV. JARDUERA-ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA GAUZATU BEHARREKO EKINTZAK			28
IV.1. Lehenengo ardatza: Genero-indarkeriaren biktimentzako arreta			30
IV.1.1. Jaurlaritzaren politika antolatzea genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko			31
IV.1.2. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumei arreta osoa ematea			33
IV.1.3. Edonolako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eta haien seme-alaben segurtasuna bermatzea			42
IV.1.4. Genero-indarkeriaren kasuetan arreta- eta jarduketa-protokoloak egin eta bete daitezela sustatzea			47
IV.2. Bigarren ardatza: Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak			52
IV.2.1. Genero-indarkeriaren biktimentzako prebentzio- eta arreta-programa integralak koordinatzea erakunde eta administrazio publikoen artean			54
IV.2.2. Eusko Jaurlaritzaren politika koordinatzea genero-indarkeriaren alorrean			57
IV.2.3. Erkidegoko eta Estatuko erakundeekin lankidetzan jardutea			59
IV.3. Hirugarren ardatza: Genero-indarkeriaren alorreko sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa			61
IV.3.1. Herritarrak genero-indarkeriaz sentsibilizatzea, lehen mailako gizarte-arazoa den aldetik			63
IV.3.2. Indarkeriazko jokaeren prebentzioa hobetzea			67
V. ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANAK, ETA GIZARTE- ETA EKONOMIA-ERAGILEEN ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA			71
VI. KONTUAN HARTUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK			72
VII. PLANA KUDEATZEKO EREDUA			77
VIII. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA			78
IX. ERANSKINA			80

I. PLANTEAMENDU	OBJEKTIBOA.	PROGRAMAKO
ERREFERENTEAK		



Genero-indarkeria XXI. mendeko arazo handienetako bat da, emakumeen heriotzen lehenengo kausa bihurtu baita. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren emaitza da, gizarte-egiturak berak kulturalki eraikitzen, legitimatzen eta berregiten duen desberdintasunaren ondorioa, alegia. Emakumeen aurkako indarkeria historiako kultura gehientsuenetan gertatu da. Fenomeno unibertsala da, adina, gizarte-maila, arraza, ideologia edota erlijioa edozein izanda ere. Fenomeno hori are eta larriagoa da, oraindik orain arte komunitatetik kanpo egon delako, eta herritarrak arazo hori ikusteko gai izan ez direlako.

Genero-indarkeria gure garaiko orban handienetako bat da; “egunero munduko emakumeek sistematikoki pairatzen duten diskriminazioaren eta desberdintasunaren adierazpen ankerrena” eta, ziur asko, giza eskubideen urraketa ohikoena eta munduko pertsona kopuru handiengan eragina duena, emakumeak izateagatik soilik. Emakumeen aurkako indarkeria hori unerik lazgarriengan geratzen da agerian, baina prozesu luze baten emaitza da. Prozesu hori askoz ere lehenago hasten da, eta gutxiago ikusten diren aztarnak eragiten ditu, etxeko intimitatean bikotekideek emakume horien duintasuna eta estimua etengabe gutxien dutenean. Egoera hori isilean eta ezkutuan gertatzen denez, denborarekin arazo guztia handiagotu egiten da. Indarkeriaren maila latzena pairatu ostean epaileak emandako Babes Agindua duten emakumei arreta egokia ematea ez da nahikoa. Babes hori ematea lehenetsuzko helburua da, zalantzarik gabe, baina ezin daiteke helburu bakarra izan. Hainbat alorretan lanean jarraitu behar da: prebentzioan, detekzio goiztiarrean, erakundeen arteko lankidetzan, inplikaturako sektore guztien prestakuntzan, eta herritarren sentsibilizazioan.

Azken hamarkadetan, indarkeria horren agerraldiak giza eskubideen urraketatzat hartzen hasi gara eta jarrera-aldaketa horrekin bide zuzenari heldu diogu. Bizitzeko eskubidea, duintasun-eskubidea, askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, torturarik eta tratu txarrik ez pairatzeko eskubidea eta abar urratzen dira, emakumeek indarkeria pairatzen duten bakoitzean. Urraketa horiek gizarte demokratiko baten aurrerabidea eragozten duten oztopoak izateaz gain, emakume biktimen pertsonalitatearen garapenaren aurkako erasoak dira eta horiek dira larriak.

Emakumeen mugimenduek bultzatutako dinamikak sustatu zuen emakumeen aurkako indarkeriari nazioartean aurre egitea. Emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa 70eko hamarkadatik aurrera geratu zen agerian, mugimendu feministari esker. Izan ere, generoen arteko harremanen ikuspegia aldatu egin zen mugimendu feministak salatu zuenean emakumeen mendekotasun-egoeraren oinarrian emakumeen aurkako indarkeria zegoela, neurri batean. Horrenbestez, emakumeen egoera ulertzeko bide berriak zabaldu ziren eta indarkeria horri aurre egiteko baliabideak sortzea bultzatu zuten.

Horren ondorioz, 1979an Nazio Batuen Batzar Nagusiak onetsi zuen emakumeen aurkako diskriminazio-modu guztiak deuseztatzeari buruzko Konbentzioa. Dena dela, emakumeen aurkako indarkeriaren auzia ez zen sortu Konbentzio horren ondorio zuzena bezala. Izan ere, arazoa berariaz planteatu zen 1980an, Emakumei buruzko Nazio Batuen Mundu Konferentzia egin zutenean Kopenhagen. Konferentzia hartako 48 erabakien artean, “Tratu txarrak pairatzen dituen emakumea eta familiako indarkeria” izeneko erabakia ere hartu zuten.



Horrenbestez, genero-indarkeriaren aurkako borrokan emakume-elkarteek betidanik izan duten zeregina goresgarria izan da. Hain zuzen ere, emakume askok etxean pairatzen zutena salatzeaz gain, orban horren aurka borroka egiteko neurriak eta baliabideak jarri dituzte gizartean. Bestalde, azpimarratzekoa da elkarte horiek betidanik izan dituzten baliabide ekonomiko urriak, eta horren ondorioz elkarte horietan diharduten profesional gehienak boluntarioak direla. Elkarte horiek egunero lanean dihardute genero-indarkeriaren biktimentzako arreta hobetzeko, biktimak babesteko baliabide handiagoak eta hobeak lortzeko, eta tratu txarrak pairatutako emakumeentzako prebentzio- eta laguntza-neurriak jartzeko lege-erreformak bultzatzeko. Horrenbestez, haien ahotsa aintzat hartzea ezinbestekoa da alor horretan erreformak egiteko garaian.

Genero-indarkeriaren aurkako borrokaren aurrekari historikoak ikusi ostean, eta emakume-elkarteek emandako bultzadari erreparatu ondoren, legearen ikuspegitik arazo larri horri heltzearen funtsezko hobekuntzak eragin dituzten estatuko eta nazioarteko araudi-aldaketak aipatzeko garaia da. 90eko hamarkadan jada, Emakumeen aurkako Indarkeria deuseztatzeko Nazio Batuen Erakundearen adierazpenak –Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1993ko abenduaren 20an onetsiak– emakumeen aurkako indarkeria honela definitzen du: “emakumea izatean oinarri duen indarkeria-ekintza oro, emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, sexuala edo psikologikoa dakarrena, horrelako ekintzen mehatxuak, bortxak edota askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, jendaurrean nahiz pribatuan gertatzen direnak aintzat hartuta”.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, genero-indarkeriaren aurkako babes osoa emateko neurriei buruzkoak, 1.3. artikuluan adierazten du “Lege honi dagokion genero-indarkeriak barne hartzen ditu indarkeria-ekintza fisiko eta psikologiko guztiak, sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, bortxak edota askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta”.

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 50. artikuluan definitzen du genero-indarkeria: *emakumea izateagatik eragindako indarkeria-ekintza oro, emakumeari kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa dakarkiona edota ekar diezaiokeena, horrelako ekintzen mehatxuak, bortxak edota askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, jendaurrean nahiz pribatuan gertatzen direnak kontuan izanik.*

Genero-indarkeria, azken finean, gizarte-arazo konplexua da; eta, arazo hori desagerrarazteko, diziplinarteko erantzuna eman behar zaio.

Testuinguru horretan, erakundeen aldetik emakumeen aurkako indarkeriak beste edozein indarkeria-motari ematen zaion arreta bera merezi duela aintzat hartuta, gizartearen orban hori desagerraraztea eta emakume biktimei arreta ematea Jaurlaritzaren helburu dira legegintzaldi honetan. Hala adierazi zuen lehendakariak 2009ko maiatzaren 5eko inbestidura hitzaldian; eta iragarri zuen, eginkizun hori gauzatzeko, berariazko zuzendaritza eratuko zela Herrizaingo Sailaren mendean.

Baina, horretaz gain, PSOEren hauteskunde-programan arazo larri horri aurre egiteko hainbat erreferentzia eta ekimen ageri ziren. Izan ere, aipatutako programak gai horri



buruzko berriazko atala dauka “Genero-indarkeria eta emakumeen segurtasunerako eskubidea”, eta atal horretan jasota daude Plan honetan aipatuko diren hainbat gai. Haien artean aipatzekoak dira:

- Genero-indarkeriaren Behatokia sortzea.
- Genero-indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko sentsibilizazio-neurriak sendotzea.
- Biktimei laguntza psikologikoa eta lege-aholkularitza hobea ematea.
- Birgaitzeko eta lanean txertatzeko programak, genero-indarkeriaren biktimak lan-merkatuan berriz sar daitezen.
- Genero-erasoen biktimei arreta osoa emateko sare bat sortzea.
- Genero-indarkeriaren prebentziorako programa integralak sustatzea.

Ildo horretan, Herrizaingo sailburuak, Eusko Legebiltzarrean Sailaren jarduera-lerro nagusiak aurkeztu zituenean, ekintza adierazgarrien artean aipatu zuen Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren sorrera. Zuzendaritza berri horren zereginen berri ere eman zuen: emakumeen aurkako indarkeriari aurre egitea, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza eta babesa ematea, berdintasunaren aldeko kultura sustatzea, eta arlo horretan Jaurlaritzak garatu asmo dituen ahalegin guztiak koordinatzea. Zeregin horiek guztiak bideratzeko, neurri batzuk abian jartzea aurreikusi da genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko, EAEko erakunde guztien artean arreta osoa emateko sarea osatuz.

Gainera: Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak, 2009ko abenduaren 10ean egindako bileran, genero-indarkeriaren aurkako borrokari buruzko erakunde-adierazpena onetsi zuen. Adierazpen horretan genero-indarkeriatzat hartzen da *emakumeek, emakume izateagatik, jasan dezaketen eta kalte fisiko, sexual edo psikologikoak eragin ditzakeen edozein ekintza ulertuta, eta ekintza horien artean bizitza publikoan zein pribatuan ematen diren mehatxuak, bortxak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta*. Genero-indarkeria da desberdintasunaren adierazpenik onartezinena, hala aitortu zen Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkura horretan. Horrenbestez, orban horri erantzutea erakunde guztien eginkizuna da; eta, azken finean, gizarte guztiaren eginkizuna da.

Ikuspegi horretatik, zalantzarik gabe, emakumeen aurkako indarkeria oso arazo larria da, herri-aginte guztien esku-hartzea eskatzen du, eta hainbat aldetatik ekin behar zaio. Horrenbestez, ikuspegi hori funtsezkoa da herri-aginteen jardunbide irmoa behar duen gizarte-arazoari aurre egiteko. Izan ere, Espainiako Konstituzioaren 9.2. artikulua herri-aginteei eskatzen die norbanakoen eta norbanakoek osatutako taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izateko baldintzak sustatzea, haiek gauzatzea galarazten edo eragozten duten oztopoak kentzea, eta herritar guztiak politikaren, ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen alorretan parte hartzea bideratzea.

Puntu horri dagokionez, aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzak, emakumeen aurkako indarkeriari buruz erakunde arteko berriazko bi hitzarmen sinatzeaz gain, berdintasunerako bost planen bidez indarkeriaren alorreko helburuei eta jardueri buruzko plangintza egin duela. Genero-indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren Jarduteko I. Planaren helburua da jarduera horiek abiaraztea, IX. legegintzaldian Herrizaingo Sailaren barruan



Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortu ostean. Plan honek berariaz erantzungo die Jaurlaritzak legegintzaldi honetarako planteatutako helburu estrategikoei. Horrenbestez, aipatutako Zuzendaritzari dagokio prebentzioa sustatzeko eta genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko programa integralak bultzatzea eta koordinatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean gauzatutako programak eta proiektuak ikuskatzea eta haien jarraipena egitea. Halaber, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko jarduerak bultzatu behar ditu, eta EAEko herri-aginteei aholku eman eta haiekin lankidetzan jardun behar du. Herritarrak sensibilizatzeko neurriak garatu eta bultzatu behar ditu, genero-indarkeriaren biktimen egoerari, eskubideei, laguntza-baliabideei, eta baliabide horiek eskuratzeko bideei buruz, abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuak, Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak, xedatutakoari jarraiki. Horregatik guztiagatik, Plan honek aintzat hartzen ditu Eusko Jaurlaritzaren zeregina sendotzeko neurriak oro har, eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren eginkizuna indartzeko neurriak, batez ere, arlo horretan eskumena duen organoa den aldetik.

Horrenbestez, Plan honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, genero-indarkeriaren edozein adierazpenaren aurrean, jarduerak eta neurriak xedatzea. Hortaz, eremu horretan azpimarratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrearen zerbitzu guztien arreta integralerako sarea koordinatzeak eta sortzeak hartzen duen garrantzi berezia, haien eraginkortasuna handiagotzeko eta zerbitzuak eskuratzeko bide hobea eta azkarragoa jartzeko asmoz. Eginkizun horiek guztiak gauzatuko dira, edozein genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubide guztiak aintzat hartzea ahaztu gabe.

Aipatzekoa da, halaber, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egindako lana. Otsailaren 5eko 2/1988 Legearen bidez sortu zen Emakunde eta administrazio-izaera duen Erakunde Autonomoa da; nortasun juridiko propioa du eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariari atxikita dago. Sortu zenetik, haren funtsezko helburua izan da emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzea Euskal Autonomia Erkidegoko politikaren, ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen arlo guztietan. Euskal Autonomia Erkidegoan berdintasun-politikak bultzatzeko, aholkatzeko, planifikatzeko eta ebaluatzeko erakundea da. Emakunderen funtzioak, lehen aipatutako legean zehaztuak, aldatu egin ziren otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bidez. Horrenbestez, funtzio hauek hartu zituen Emakundek, besteak beste: proposatutako helburuak lortzeko zuzentarauak prestatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginteei zuzentarau horiek bete ditzaten bultzatzea; berdintasun-politiken eta autonomia-mailako legeen jarraipena egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioari egokitzen ote diren ikusteko; legeak erreformatzeko proposamenak prestatzea, bi sexuen arteko benetako berdintasuna eraginkorra galarazten edo eragozten duten oztopoak kentzeko; politika-eremu guztietan genero-ikuspegia aintzat hartzeko metodoak diseinatzea; eta EAEko herri-administrazioei aholku ematea eta haiekin lankidetzan jardutea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako prestakuntza-planak diseinatzeko.

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortuz gero, IX. legegintzaldiaren egitura organiko propioaren ondorioz, Emakundek eta aipatutako Zuzendaritzak lankidetzan dihardute, beharrezko koherentzia, osagarritasuna eta



adostasuna lortzeko, batak eta besteak beren eskumen-eremuetan gauzatzen dituzten lanen artean.

Erakunde arteko koordinazioaren eta lankidetzaren alorrean aipatu behar da orain arte bi hitzarmen adostu direla: 2001eko urriaren 18an, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak sustatuta, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntza hobea emateko erakunde arteko Hitzarmena adostu zen EAEn, eta arlo horretan diharduten erakundeetako goi-agintariek sinatu zuten; urte batzuk beranduago, 2009an, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta hobea emateko erakunde arteko II. Hitzarmena sinatu zen eta dokumentu hartan adostu zen Jarraipen Batzorde bat sortzea. Jarraipen Batzordearen funtzioak hauek ziren, besteak beste: Hitzarmenean jasotako neurriak eta jarraibideak benetan aplikatzen direla bermatzea, baterako jarduerak proposatzea eta erakunde arteko koordinazioa hobetzeko eta jarduera-protokoloko edukiak egoera edo baldintza berrietara egokitzeko proposamenak egitea.

Genero-indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren Jarduteko I. Plan hau diseinatzeko, ezinbestekoa da “EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana / IX. legealdirako jarraibideak” planarekin koordinatzea (aurrerantzean Berdintasunerako V. Plana). Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluak 2010eko ekainaren 9ko bilkuran onetsi zuen Plana eta 2010eko ekainaren 29ko Gobernu Bileran ere onetsi zuten. V. Planak esku-hartzeko ardatz estrategiko bat dauka “Emakumeen aurkako indarkeria” aintzat hartuta. Bi arlotan edo programatan jardutea proposatzen du: sentsibilizazioa eta prebentzioa, batetik, eta genero-indarkeriaren biktimei laguntzea, bestetik.

Horren guztiaren ondorioz, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak egituratu behar dituzte, bakoitzak bere eskumenak aintzat hartuta, bi administrazio-organoen genero-indarkeriaren alorreko jardueren eraginkortasuna eta efizientzia bideratzeko koordinazio-mekanismoak. Egoera horri buruzko adierazpena Berdintasunerako V. Planean azaltzen da; izan ere, dokumentu horretan xedatzen da Eusko Jaurlaritzaren eremuan Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak koordinatu eta zuzendu behar dituela genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko politikak eta organo horri dagokiola erakunde arteko koordinazioa bultzatzea, dekretu hauetan xedatutakoari jarraiki: maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretua, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen; eta abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretua, Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa.

Gainera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak hitzarmena sinatu zuten, Gobernu Kontseiluak onartuta 2010eko urriaren 5eko bilkuran; bi erakundeetako planek (Berdintasunerako V. Plana eta Genero-indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren Jarduteko I. Plana) adierazitako helburuen artean hauek daude: osagarriak izateko eta adostasuna lortzeko behar diren koordinazio-ekintzak ezartzea. Horretaz gain, hitzarmen horren helburua bi erakundeen arteko lankidetzaren eremua sendotzea eta zehaztea da, bakoitzari dagokion xedea betez, nork bere jardunean, koordinazio, eraginkortasun, informazio-truke, elkarri laguntza eta instituzioen arteko leialtasun printzipioen arabera, betiere genero-indarkeriaren biktimei laguntzaren kalitate hobea lortzeko asmoz.



Aipatu helburua betetzeko asmoz, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak hainbat konpromiso hartu zuten, sinatutako hitzarmenean, batez ere, elkarlan eta informaziokoak, dagokien jardun eremuan lankidetzaz-esparrua sortzeko; era berean, erakunde bien artean koordinazio-ereduak ezarri zituzten, biak lotzen dituzten jarduerak eta konpromisoak bilduz. Horren adibide gisa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen konpromisoa aipatu behar da, hain zuzen genero-indarkeriaren emakume-biktimen edozein galdera, kexa, eskaera, iradokizun edo proposamena jakinarazteko konpromisoa Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari; edota genero-indarkeriaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoan dauden baliabideen eta programen eraginkortasuna eta irismena ebaluatzearen emaitzak; edo sinatutako protokolo, hitzarmen edo erabakiak, edozein dela jardun-eremua; era berean, 4/2005 Legearen 77. artikuluan tipifikatutako arau-haustea izan daitezkeen egintzak edo Emakumearen Euskal Erakundearen eskumeneko jarduerak daudelakoan badago, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak duen informazioa Emakunderi bidaltzeko konpromisoa hartu du. Gainera, bi erakundeek batera sensibilizazio-kanpainak sustatu ahal izango dituzte, hala egokituz gero, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde, edo honi buruzko ikerketak: genero-indarkeriaren arrazoiak eta ondorioak, errotik ateratzeko aplikatzen diren neurrien eraginkortasuna eta egokitasuna, eta bere ondorioak konpontzea.

II. EGOERAREN DIAGNOSIA ETA TESTUINGURUA

Atal honetan gure Autonomia Erkidegoko azken urteotako datuak agertuko dira, Ertzaintzak bere eskumeneko jardueran jakin dituenak eta lagungarriak izan daitezkeenak genero-indarkeriaren arazoak, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan duen garrantzia eta larritasuna ulertzeko.



Azpimarratu behar da, ordea, jakina den bezala, datu horiek ez dutela errealitatea zehatz-mehatz adierazten. Izan ere, gizarte-arazo horretaz hitz egitean askok eta askok esan bezala, “icebergaren muturra” soilik ikusten dugu; salaketa jartzea erabakitzen duten emakumeen egoera soilik ezagutzen dugu, indarkeriaz zipriztindutako harremana nolabait hausteko asmoa duten emakumeena. Baina “kopuru beltza” oraindik ere handia da, alor horretan diharduten profesionalak adierazitakoaren arabera.

Emakumeek pairatzen duten indarkeria da jarduteko I. Planaren helburu den genero-indarkeria, emakume izate hutsagatik. Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak “genero-indarkeria” kontzeptu zabala aintzat hartzen du, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak ez ezik, bestelako indarkeria ere aintzat hartuta. Izan ere, bai etxeko tratu txarrak, bai sexu-erasoak, emakumeen aurkako indarkeriaren oso adierazpen larriak dira, baina ez dira arazo bakarrak. Horrenbestez, genero-indarkeriaz zentzu zabalean hitz egitean, genero-indarkeriaren hiru mota nagusi bereizi behar dira:

- 1) Bikote-harremanetan edo haien ondoren emakumeen aurka eragindako indarkeria; **bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindako indarkeria**, alegia.
- 2) Familiako gizonak (aitek, semeek, nebek...) emakumeen aurka eragindako indarkeria. Indarkeria-mota horri **familia barruko genero-indarkeria** esango diogu (bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindako indarkeria ez da sartzen).
- 3) Aipatutako eremu horietatik kanpo, gizonak emakumeen aurka eragiten duten sexu-indarkeria (hezkuntzan, lanean, auzoan, aurretiko harremanik gabe...). Multzo horretan sartzen dira **sexu-askatasunaren aurkako delitu** hauek: sexu-erasoa, sexu-abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa, sexu-probokazioa, adingabeak galbideratzea, behartutako prostituzioa, eta adingabeen prostituzioa.

Gehiago zehaztuta, bikotekideak edota bikotekide ohiak eragindako indarkeria eta familia barruko indarkeria egungo Kode Penalean araututa daude, berezko delitu bezala sailkatuta (153.¹ edo 173.2 artikulua) edo delitu komun berariazko astungarri bezala (II. Liburuan jasota: “Delituak eta zigorrak”) bikotekidearen, bikotekide ohiaren edota Kode Penalaren 173.2 artikuluan aurreikusitako subjektuen ondare juridiko babestuei eraso egiten zaienean (gizahilketa; lesioak; askatasunaren aurkako delituak –mehatxuak eta bortxak–; tortura eta osotasun moralaren, sexu-askatasunaren eta sexu-kalterik ezaren aurkako beste delitu batzuk; intimitatearen eta bizilekuaren bortxaezintasunaren aurkako delituak; ohorearen aurkako delituak –irainak, kalumniak–; familia-harremanen aurkako delituak; eta zigorra, segurtasun-neurria, presoaldia edo erresalbuzko neurria haustea). Horregatik guztiagatik, ekainaren 22ko 5/2010 Lege Organikoa, Kode Penaleko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena, indarrean jartzean, berebiziko garrantzia duen araudia eratzen da, emakumeen aurkako indarkeria eragiten duten jokabide guztiak zigortzeko. Izan ere, bikotekidearen, bikotekide ohiaren, edo Kode Penalaren 173.2

¹ “Edozein bitartekoz edo prozeduraz baliatuta, Kode honetan delitutzat hartzen ez den kalte psikikoa edo lesioa norbaiti eragiten diona, edota jotzen duena edo tratu txarra ematen diona, lesiorik eragin gabe, baldin eta kaltetua emaztea, emazte ohia, edota antzeko afektibitate-harremana duen edo izan duen emakumea izanez gero, baita elkarrekin bizi ez badira ere”



artikuluari aipatutako gainerako subjektuen ondare juridikoen aurkako eraso guztiak legez araututa eta sailkatuta daude.

Sexu-askatasunaren aurkako delituak bi eremu hauetan ere gertatzen dira: bikote-harremanetan edo bikotekide ohien arteko harremanetan, eta familia barruko harremanetan (bikote-harremanak eta bikote ohien arteko harremanak sartu gabe).

Emakumeen aurkako indarkeria motei dagokienez, *bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriari* erreparatuta, eta arlo horretan egindako ikerketak aintzat hartuta, bost tratu txar edo indarkeria-mota bereiz daitezke:

- *Fisikoa*. Definitzeko esan ohi da kalte fisikoa eragiten duen edo eragin dezakeen ekintza dela, ezbeharrezkoa ez dena. Hainbat ekintza aintzat hartzen dira: bultzatzea, jotzea, objektuak jaurtitzea... baita lesio larrien ondorioz emakumeen heriotza eragiten dutenak edo eragin dezaketenak, mediku-tratamendua edo kirurgia behar duten lesioak, eta ospitaleratzetik eragiten ez dutenak ere. Tratu txar horien artean sartzen da, halaber, erasoek eragindako gaixotasun edo lesioak sendatzeko laguntzarik ez ematea. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-mota ezagunena da, indarkeria fisikoaren ondorioa sarritan emakumeen gorputzean ikusten baita, eta, horregatik, begiratu batean antzematea errazagoa da, beste tratu txar batzuetan baino; eta ikusteko erraztasun horrek bideratzen du berehalako eta egiaztatzeko moduko epaile-froga izatea.
- *Psikologikoa*. "Hitzezko portaera hertsagarriak (adibidez, irainak) eta hitzezkoak ez diren portaera hertsagarriak, bikotekidearen gorputza helburu ez dutenak (esate baterako, ateei kolpeak ematea edo gauzak hondatzea)", Jimenez Casadoren definizioari jarraiki. Tratu txar psikologikoak nahita egindakoak dira eta biktima diren emakumeengan kalte psikologikoa, balio-galera edo oinazea eragiten dute hainbat modutan: irainak, laidoak, garrasiak, isilaldiak, mehatxuak, salaketak, bestearen ideiak kritikatzeko... Portaera horiek jendaurrean edo pribatuan gerta daitezke. Tratu txarra ematen duenak jokabide hori pribatuan soilik adierazten badu, oso zaila da indarkeria hori detektatzea. Egile batzuk, esate baterako Washingtongo *Center for Women Policy Studies* ikerkuntza-zentroko Ganley doktoreak, beharrezkotzat jotzen dute abusu psikologikoa eta abusu emozionala bereiztea. Portaerak berdin-berdinak dira, baina indarkeria psikologikoa gertatzen da testuinguru horretan indarkeria fisikoa ere noizbait gertatu denean; horrenbestez, mehatxuek, irainek, beldurrarazteek eta abarrek kalte handiagoa eragin dezakete, abusu fisikoa gogorarazteaz gain berriz ere gertatuko den beldurra sentiarazten dutelako. Aitzitik, abusu emozionala gertatzen da bestelako abusurik ez dagoenean, aurretik abusu fisikorik gertatu ez denean. Sotilagoa da, baina oinaze handia eta ezinegona eragiten ditu zenbait jokaeraren bidez: irainak, axolagabekeria eta/edo maitasunik eza adieraztea, etab. Indarkeria psikologikoa salatzen duten kekek ez dira gutxietsi behar. Izan ere, indarkeria psikologikoak eragiten duen ondoeza eta pilatzen duen oinazea indarkeria fisikoa bezain kaltegarria izan daiteke.
- *Sexuala*. Tratu txar sexuala edo sexu-abusua da emakumeen borondatearen aurka egindako edozein sexu-kontaktua. Hainbat jokaera aintzat hartzen dira: sexu-harreman bat exijitzea edo inposatzea (ezezagun batek eginez gero, bortxaketatzat



hartuko litzake, inolako zalantzarik gabe); biktima behartzea mingarriak edo desatseginak gertatzen zaizkion praktiketara, edota egin nahi ez dituen gauzak eginaraztea; sexualki laidoztatzea; sexua praktikatzeko modua kritikaztea; sexu-objektu bezala tratatzea... Tratu txar sexualaz hitz egitean, adingabeaz aritzen gara askotan; izan ere, bikote-harremanetan sexu-indarkeria naturalizat hartzen da, eta ez da benetako indarkeria bezala ikusten. Orokorrean, emakumeek ez dute onartzen behartutako sexualitatea bortxaketa denik, eta ekintza horrek eragiten duen tratu txar fisiko eta emozionala ukatzen dute. Horrela gertatzen da bikote barruan sexua ulertzen delako emakumeen betebeharrak eta gizonen eskubide bezala, nahiz eta behartutako sexu-harremana izan.

- *Soziala*. Tratu txar soziala gertatzen da emakumeak bakartzean, familiakoengandik eta lagunengandik urrun; jendaurrean gaitzestean edo alde batera uztean, etab. Portaera horiek guztiek kalte psikologikoa eragiten dute. Horregatik, egile batzuek ez dute beharrezkotzat jotzen tratu txar sozialaren kategoria bereiztea, portaera edo jarrera horiek tratu txar psikologikoen artean sartu behar direla uste baitute. Hala eta guztiz, tratu txar sozialen multzoan sartzen diren portaera guztiek oinaze psikologikoa eragiten dutela onartu arren, tratu txarren berariazko motatzat hartzea egoki iruditzen zaigu, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkerian sarritan agertzen direlako, eta garrantzi handia dutelako, biktima bakartuta dagoenean are eta zailagoa baita tratu txarrek eragindako egoera horretatik ateratzea.
- *Ekonomikoa edo finantzarioa*. Tratu txar horren muina da “diruari buruzko informazioa eta haren erabilpena galaraztea” (Emakunderen *Emakumeen aurkako indarkeria* txostena, 2006ko apirilean eguneratua, 5. orrialdea). Tratu txar ekonomikoak baliabide ekonomikoak erabiltzeko lehentasunekin zerikusi handiagoa du baliabide ekonomiko horien urritasunarekin baino. Indarkeria ekonomikoa gizarte-maila guztietan ageri da; indarkeria horren adierazpideak desberdinak dira, baina kontrol- eta lotura-jarrera berdinak ageri dira beti, baliabideak eta aberastasunak edonolakoak izanda ere. Tratu txar ekonomikoaren helburua da emakumeek erabiltzen duten dirua zorrotz kontrolatzea. Kontrol hori ezartzen da, emakumeek lan ordaindua izan edo ez izan.

Ohikoena da harreman batean tratu txarren mota bat baino gehiago agertzea.

Familia barruko genero-indarkeriari erreparatuta, emakumeei kalte edo oinaze fisikoa, sexuala edo psikologikoa eragiten dion edota eragin diezaiokeen indarkeria-ekintza bezala ulertuta, eta familia-harreman batean gertatzen dena (bikotekideek edota bikotekide ohiak eragindako indarkeria alde batera utzita), hiru indarkeria-mota bereizten dira:

- *Fisikoa*: ezbeharrezkoak ez diren ekintzak, biktimaren osotasun fisikoa arriskuan jartzea edo kaltetzea eragiten dutenak.
- *Psikologikoa*: ezbeharrezkoak ez diren ekintzak, biktimaren osotasun psikikoa kaltetzea edo arriskuan jartzea eragiten dutenak.
- *Sexuala*: emakumearen adostasunik gabe egindako sexu-jokaera oro.

Amaitzeko, **lan-eremuan gertatzen diren sexu-askatasunaren aurkako delituei** erreparatuta, azpimarratzekoa da eremu horretan emakumeen aurka eragiten den indarkeria ere fisikoa, sexuala edo psikologikoa izan daitekeela, eta bi mota bereizten direla: emakumea



izateagatik pairatutako jazarpena eta sexu-jazarpena. Indarkeria-mota horiek lantokian edo handik kanpo gerta daitezke, lanorduetan edo lanorduetatik kanpo, baldin eta lanarekin zerikusia badute. Emakumea izateagatik pairatutako jazarpena da emakumeak nahi ez duen portaera, lanean sartzean, gora egitean, okupazioan edo prestakuntzan pertsona bat bere egoeraz baliatzen denean emakumeen duintasuna kaltetzeko, eta inguru beldurgarria, iraingarria eta zakarra sortzeko. Sexu-jazarpena, berriz, emakumeak nahi ez duen hitzezko edo ez-hitzezko portaera da, edota sexu-izaera duen portaera fisikoa, emakumeen duintasuna kaltetzea helburu duena, edota ondorio hori eragiten duena.

II.1. GENERO-INDARKERIAGATIK EAEn HILDAKO EMAKUMEAK

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumei buruz jardutean, azpimarratu beharreko lehenengo datua da, zalantzarik gabe, indarkeria horren ondorioz EAEn hildako biktimen kopurua: 2009an, hain zuzen, bi emakume hil ziren. Bi emakume horiek bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren ondorioz hil ziren: 44 urteko emakume bat, hiru haurren ama, senarrak hil zuen martxoaren 23an, Gernikan, senar-emazteen etxean; eta 37 urteko emakume bat, alaba baten ama, bikotekide ohiak hil zuen maiatzaren 9an, Irunen. Azpimarratzekoa da bi kasuak bat datozela xehetasun batean: ez zegoen erasotzaileen aurkako salaketarik; horrenbestez, erakundeek ez zuten egoeraren berri, eta biktimek ez zuten babes-neurririk.

Azken zortzi urteotan, 22 emakume hil dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan; datu horrek adierazten digu zenbaterainokoa den arazoaren garrantzia eta larritasuna. Oso latza izan zen 2004 urtea: genero-indarkeriaren ondorioz bost emakume hil ziren, haietatik lau bikotekideak edo bikotekide ohiak erailda, eta bosgarrena familiako batek hil zuen.

Hildako emakumeen adinari erreparatuta, aipatzekoa da batez bestekoa 45 urte ingurukoa dela. Halaber, oso adierazgarria iruditzen zaigu 2002tik 2009ra bitartean EAEn genero-indarkeriaren ondorioz eraildako emakumeen erdiak 35 urte edo gutxiago izatea. Datu horrek adierazten digu garrantzi handikoa dela genero-indarkeria gazteen artean prebenitzeko lanetan jarraitzea, eta genero-indarkeriaren lehenengo jazoera gertatu bezain laster salatu behar dela.

Nazionalitateari erreparatuta, adierazi behar da gure Autonomia Erkidegoan azken zortzi urteotan eraildako emakumeen %31,8 etorkinak zirela.

Biktima batzuk familiako beste pertsona batek erail baditu ere (horrenbestez, biktima horiek familia barruko indarkerian sartu behar ditugu), genero-indarkeriaren ondorioz hil diren emakume gehientsuenak bikotekideek edo bikotekide ohiak erail dituzte. Zehazki EAEn 2002tik 2009ra bitartean eraildako emakumeen %77,2 bikotekideek edo bikotekide ohiak erail dituzte.



Eta amaitzeko, beste datu adierazgarri batek jakinarazten digu genero-indarkeriaren ondorioz eraildako emakumeen %68,2 hiltzailearekin bizi zirela. Oztupo itzel horrek eragozten du herri-aginteeek genero-indarkeriaren kasu horiek ezagutzea, prebentzioan eta arazoei aurre egiten jardutea, eta kasu bakoitzean behar diren babesneurriak hartzea. Biktima diren emakumeen arriskua gero eta handiagoa da genero-indarkeriaren alorreko jazoerak gertatzen zaizkion heinean, eta erakunde guztien zeregina da ikerketan eta talde-lanean jardutea kasu horiek jakinarazteko. Are gehiago, argi eta garbi ikusten da arazo larri horri aurre egiteko funtsezkoa dela herritarrak sentsibilizatzea, ustezko genero-indarkeria kasuak salatu ditzaten.

Bost emakume hil ziren genero-indarkeriaren ondorioz, 2010 urtean: haietatik bi bikotekideak edo bikotekide ohiak erailda eta beste hirurak familia barruko genero-indarkeriaren biktima.

Urtarrilaren 17an Elena Cal, Tolosan hilik; otsailaren 8an Amelia Sanchez, Barakaldon hilik; otsailaren 19an Isabel Velez, Lasarten hilik; uztailaren 25ean Amelia Amaya, Bibon hilik, bikotekideak erailda; eta abenduaren 6an Cristina Estebanez, Barakaldon hilik, bikotekide ohiak erailda.

Espainiako nazionalitatea zuten 2010ean eraildako bost emakumeek. Bost emakume horietatik lauk erasotzailearen aurkako salaketaren bat jarria zuten. Hala eta guztiz, haietatik hiru erasotzailearekin bizi ziren.

II.2. GENERO-INDARKERIAK EAEn ERAGINDAKO EMAKUMEEN BIKTIMIZAZIOAK ETA EMAKUME BIKTIMAK

Biktimizazioa eta *biktima* kontzeptuak bereiztea garrantzitsua da; biktimizazioez ari garenean gertaerak zenbatzen ditugu, eta biktimez ari garenean pertsonak zenbatzen ditugu.

- *Biktimizazioak*: pertsona bat zenbat aldiz izan den lege-hauste baten helburu, epe jakin batean, Ertzaintzaren dokumentuetan biktima bezala azaltzen delarik. Adibide hau argigarria izan daiteke: pertsona batek zenbait mehatxu pairatu eta dagozkion salaketak jarri ditu; salaketa bakoitzak biktimizazio bat dakar.
- *Biktimak*: lege-hauste baten helburu izan diren pertsonak, epe jakin batean, Ertzaintzaren dokumentuetan biktima bezala azaltzen direlarik. Aurreko adibidean, biktima bakar bat izango genuke.

2010eko lehenengo seihilekoan, genero-indarkeriaren ondorioz, emakumeen 2.029 biktimizazio gertatu dira, eta 1.763 emakume biktima izan dira. Kasu gehienetan erasotzailearen eta biktimaren artean amodio-harreman bat zuten, edo garai batean hala izan zuten (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria: lautatik ia hiru).



Estatistikek adierazten dute, halaber, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako genero-indarkeria pairatzeko arriskua handiagoa dela gainerako genero-indarkeriak pairatzeko arriskua baino. 2010eko lehenengo seihilekoan, genero-indarkeriaren ondorioz gertatutako biktimizazioen %75ean bikotekidea edo bikotekide ohiak izan da erasotzailea. Gainera, ehuneko horri gehitzen badiogu “familia barruko indarkeria” (aitak, semeak edo familiako beste norbaitek eragindakoa), biktimizazioen beste %20 hartzen dugu; horrenbestez, guztira, biktimizazioen %95 familiako pertsonaren batek eragindakoak dira.

2010eko lehen seihilekoan *biktimizazio* gehien gertatutako *bilabeteak* urtarrila eta ekaina izan dira.

2009ko datuei erreparaturaz, azken urteotako datuekin bat datoz: biktimizazio gehienak udara partean gertatu ziren (maiatzean, ekainean, uztailan eta abuztuan), baita martxoan eta abenduan ere. Datu horietatik ateratzen den ondorioa da oporraldietako hilabeteetan biktimizazio gehiago gertatzen direla (udaran, Aste Santuan eta Gabonetan). Datu hori argi ageri da, batez ere, genero-indarkerien mota baten kasuan: bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren kasuan, hain zuzen; izan ere, hilabete horietan biktimak eta erasotzaileak denbora gehiago egiten dute elkarrekin.

Joera berdina antzematen da *asteke egunei* erreparaturaz gero. 2010eko lehenengo seihileko datuek adierazten dute, aurreko urteetan bezala, asteburuetan (larunbatetan eta igandeetan) biktimizazio gehiago gertatzen direla. Horrenbestez, asteke egunei erreparatuta ere, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria eta familia barruko indarkeria nabarmenagoa da bizikidetzak intentsitate eta maiztasun handiagoa duenean.

Eguneko ordui erreparatuta, eraso gehieneko orduak berriz ere bat datoz erasotzaileak aisialdia edo denbora librean izan ohi duen orduekin: arratsaldeko 7etatik gaueko 11k arte; eta bestelako joera antzematen da lanera joan aurreko atsedendu-orduetan (goizaldeko 4etatik 8ak arte).

Urteko lehenengo seihilekoan EAEn gertatutako 2.090 biktimizazioak pairatu dituzten 1.763 *emakume biktimetan* arreta jarrita, honako datu hauek ageri dira:

- o Adinari dagokionez, honako banaketa hau ikusten da, indarkeria-motaren arabera:
 - Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria:
 - 18 urtetik beherakoak: emakumeen %1,7.
 - 18-30 urtekoak: %36.
 - 31-40 urtekoak: %35.
 - 41-60 urtekoak: %25,3.
 - 60 urtetik gorakoak: %2.
 - Familia barruko genero-indarkeria:
 - 18 urtetik beherakoak: emakumeen %20.
 - 18-30 urtekoak: %14.



- 31-40 urtekoak: %14.
 - 41-60 urtekoak: %33.
 - 60 urtetik gorakoak: %19.
 - Sexu-askatasunaren aurkako delituak:
 - 18 urtetik beherakoak: %27.
 - 18-30 urtekoak: %44.
 - 31-40 urtekoak: %16.
 - 41-60 urtekoak: %12.
 - 60 urtetik gorakoak: %1.
- Sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima diren emakumeen %71 dira 30 urtetik beherakoak.
- *Jaiolekuari* erreparatuz gero, azpimarratzekoa da 2010eko lehenengo seihilekoan genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeen %69k espainiar nazionalitatea dutela. %55 EAEn jaio dira (%6 Araban, %31 Bizkaian eta %18 Gipuzkoan), eta %14 beste autonomia-erkidego batzuetan. Genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeen %31 atzerrian jaio ziren.

II.3. GENERO-INDARKERIAGATIK EAEn JARRITAKO SALAKETAK ETA SALAKETAK JARRI DITUZTEN EMAKUMEAK

Urteko lehenengo seihilekoan gertatutako 2.090 biktimizazioak 1.763 emakumek pairatu dituzte. Emakume horiek guztiak genero-indarkeriaren biktima izan dira, behin edo gehiagotan, urtearen lehenengo seihilekoan.

2.029 biktimizazio horietatik, Ertzaintzak 1.412 kasuren berri izan du salaketen bidez. Salaketa horien % 88 biktimak berak jarritakoak dira.

Salatutako 1.412 ekintza horiek 1.243 emakumeri dagozkie. Beste 520 emakumek erabaki dute ez salaketarik jartzea, polizia-kidegoak argitze-agiria egin arren.

II.4. BESTE DATU BATZUK

Emakume eskoltatuak

2010eko ekainaren amaieran, 12 emakume etengabe zainduta zeuden, eskolten bidez, haien babesa bermatzeko. Emakume horietako hiru Bizkaian bizi dira, eta bederatzi Gipuzkoan.

Eskumuturreko bilatzaileak

10 erasotzaile eta biktimak eskumuturreko bilatzaileak zituzten 2010eko ekainaren amaieran.

Sakelako telefonoak

2010eko ekainaren amaieran 166 emakumek beren babeserako Ertzaintzak emandako sakelako telefonoa zuten: emakume horietatik 31 Araban bizi dira, 74 Bizkaian, eta 61 Gipuzkoan.


EI/GI espedienteak

1.522 GI espediente ireki dira. Espediente bakoitzak biktima bat edo gehiago izan ditzakeenez, 1.671 emakumeri ireki diete espedienteak.

2010eko ekainaren 30ean 4.149 espediente zeuden jardunean. 4.678 emakumek babes-neurri polizialen bat zuten.

II.5. BILAKAERA (2002-2009)

Azken urteotako estatistikek adierazten dute genero-indarkeria kasuen kopuruak gorako joera duela. Gorakada horren arrazoia izan daiteke gizartean kontzientzia handiagoa dagoela eta kasu horiek salatzen direla, eta biktima diren emakumeak babesteko baliabide gehiago eta hobeak daudela. Horrenbestez, 1/2004 Lege Organikoaren aurretik familia barruan gelditzen zen arazo hori agerian eta guztion bistan jarri da orain. Grafiko honetan aipatutako joera hori antzematen da, eta hor ikus daiteke kasuen kopurua bikoiztu egin dela: 2002an 2.477 kasu izan ziren, eta 2009an a 4.859.



Iturria: Análisi Arloa. GVCS. Herrizaingo Saila



Hiru indarkeria-motak bereiziz gero, ikusten da zortzi urteotan sexu-askatasunaren aurkako delituen kopurua berdintsua izan dela urtero (203 kasu 2002an; 270 kasu 2009an); baina, genero-indarkeriaren beste bi motei erreparatuz gero –hau da, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriari eta familia barruko indarkeriari (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa sartu gabe) begiratzuz gero– ikusten da indarkeria-mota horiei dagozkien biktimizazioak bikoiztu egin direla. Ildo horretan, azpimarratzekoa da bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriari dagokionez, 1.711 biktimizazio gertatu zirela 2002an, eta 2009an 3.490. Familia barruko indarkeriaren kasuan, antzeko gorakada ikusten da: 563 biktimizazio 2002an, eta 2009an 1.099.

Datu horiek ikusita, aurreikus dezakegu hurrengo urteetan joera horrek gora egingo duela bi indarkeria-mota horietan (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkerian, eta familia barruko indarkerian), eta urtero 100 edo 200 kasu gehiago izango direla.

Halaber, datu horiek adierazten dute, berriz ere, emakumeen aurkako indarkeriari erreparatuta, emakumeek oso ondo ezagutzen dituzten pertsonak eta afektibitate-harremanen bidez lotutako pertsonak (bikotekideak, bikotekide ohiak, familiakoek) askoz ere arrisku handiagoa dakartela ezezagunek baino.

III. JARDUERA-ARLOAK, ESKUMEN-EREMUA ETA FUNTZIOEN ERREFERENTZIAZKO ESPARRU JURIDIKOA

III.1. JARDUERA-ARLOAK ETA ESKUMEN-EREMUA

Genero-indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren Jarduteko Plan honen bidez hartuko diren neurriek, gure Autonomia Erkidegoko eskumen-esparrutik zehaztuak, hainbat auziri erantzutea dute helburu: genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza juridikoa eta psikosoziala ematea, pairatu duten indarkeriaren ondorioz murriztutako eskubideak berrezartzea eta, batez ere, tratu txarrek emakume horiei eragindako kalteak konpontzea. Horrenbestez, genero-indarkeria arazo publikoa da, gizarte guztiarena; eta, hala denez, herri-aginte guztiek arazo horri berehala aurre egitea funtsezko urratsa da.

Azpimarratu behar da legegintzaldi honen aurretik genero-indarkeriaren alorreko eskumenak Eusko Jaurlaritzako zenbait saili esleituta zeudela, eta ez zegoela organorik, emakumeen eskaerak bideratzen eta/edo biltzen zituenik.

Alderdi horiek guztiak kontuan hartuta, Jaurlaritzak irizten dio emakumeen aurkako indarkeriak merezi dituela gainerako indarkeria-motei ematen zaien tratamendua eta erakundeen arreta. Horrenbestez, Inbestidurako Osoko Bilkuran



lehendakariak adierazi zuen genero-indarkeriaren aurkako borroka Jaurlaritzaren lehentasuneko helburua zela, eta iragarri zuen Herrizaingo Sailaren mendean berariazko zuzendaritza eratuko zela, eginkizun hori gauzatzeko eskumenak izango zituen.

Helburu horiek betetzeko, maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak, Lehendakariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak (EHAren 86. zk., 2009ko maiatzaren 9koa), 6.1.i artikulua bidez jardueraren berri bat esleitzen dio Herrizaingo Sailari: genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko politikak zuzentzea eta koordinatzea. Aipatutako guztia garatzea helburutzat hartuta, Herrizaingo sailburuak Sailaren jardueraren nagusiak Legebiltzarrean azaldu zituzten, berariaz adierazi zuen lehentasuna emango zitzaiola Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortzeari. Asmo hori gauzatu zen abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuak, Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak, xedatutakoaren bitartez (EHAren 171. zk., 2009ko irailaren 7koa). Horrenbestez, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortu zen, zuzenean Herrizaingo sailburuaren mendean.

Hortaz, abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuak, Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak, xedatutakoari jarraiki, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak –zuzenean Herrizaingo sailburuaren mendean dagoenak– funtzio hauek ditu:

- a) Biktimganako elkartasuna eta herritarren errekonozimendua sustatzea, hartarako egokienak diren ekintza eta jardueren bitartez.
- b) Genero-indarkeriaren biktimei laguntza zuzena eta pertsonalizatua ematea, Saileko prestazio, zerbitzu eta baliabideekin, baita informazioa erraztea eta ego-kiagoak diren gainontzeko prestazio, zerbitzu eta baliabideetara bideratzea, inguruabar pertsonalak aintzat hartuta.
- c) Genero-indarkeriaren Aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako laguntza ekonomikoak genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzat izapidetzea eta ematea nahiz ordaintzea ebatzea.
- d) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 58.4 artikuluan aurreikusitako ez-ohiko laguntza ekonomikoak etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei ematea izapidetzea.
- e) Etxeko indarkeriaren edo sexuaren ondoriozko erasoen biktimei diren emakumeentzako telefono bidezko informazio eta arretako zerbitzua kudeatzea.
- f) Prebenitzeko programa integralak eta genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko programak erakunde eta administrazio publikoen artean sustatzea eta koordinatzea eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren baitan garatutako programak eta proiektuak gainbegiratzea, baita horien jarraipena egitea ere.



- g) Botere publikoekin jarduerak, aholkuak eta lankidetzak sustatzea, emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeko.
- h) Informazio eta zabaltze kanpainen bidez herritarrak gaiak arduratzeko neurriak sustatzea eta garatzea, genero-indarkeriaren biktimei egoera, eskubideak, laguntzen duten baliabideak eta sarbideak azalduz.
- i) Genero-indarkeriaren biktimei aitortutako eskubideak benetan betetzen direla jarraitzea, baita helburu hori duten ekimen eta jarduerak laguntzea eta sustatzea ere.
- j) Erakunde, elkarte eta gizarte mugimenduekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, eta diru-laguntzak emateko programak zehaztea, beren helburuen artean genero-indarkeriaren kontrako jarduerak eta, bereziki, biktimei laguntzea eta arreta ematea badaude.
- k) Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiarekin eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin lankidetzan, genero-indarkeriaren biktimei prebentzio, arreta eta babesa eskaintzen esku hartzen duten langile-taldeentzat eta gizarte zibileko taldeentzat prestakuntza bereziko planak sustatzea.
- l) Genero-indarkeriaren biktimei laguntzarekin lotutako esperientziak eta praktika onak sustatzea.
- m) Segurtasun Sailburuordetzaren Kabineteko Zuzendaritzarekin lankidetzan, Zuzendaritza horrenak diren gaiei dagozkien datuak biltzeko, aztertzeko eta bideratzeko lanak antolatzea, baita bere eskumenekoak diren arloko estatistikak eta ikerketak egitea eta zabaltzea ere.
- n) Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeari dagokionez, saileko jarraibideak egitea.
- ñ) Indarrean diren arauak esleitzen dizkioten gainontzeko eginkizunak burutzea”.

Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko baliabideen eta programen jarraipena eta koordinazioa Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntza Emateko Zuzendaritzak egiten du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 51.2 eta 51.3 artikuluetan xedatutakoaren kalterik gabe.

Horrenbestez, aipatzekoa da 2011ko urtarriletik aurrera Biktimari Laguntzeko Zerbitzuen (BLZ) kudeaketa, genero-indarkeriaren biktimei dagokionez, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren mendean geratzen dela, zuzenez. Biktimari Laguntzeko Zerbitzuen helburua da edozein delituren biktima izan direnei laguntza juridikoa, psikologikoa eta gizarte-laguntza ematea, egin daitezkeen prozedura polizialen eta judizialen esparruan.

Hortaz, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza ez da sustapenez eta koordinazioaz arduratzen den organo soil bat; izan ere, beste urrats bat eman eta Jaurlaritzaren eskumenak kudeatzeko organo bihurtzen da, orain arte ez bezala.



Bestalde, aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzaren beste sail eta erakunde autonomo batzuek genero-indarkeriaren alorreko sektore-eskumenak izaten jarraitzen dutela; hauek dira:

- **Lehendakaritza: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea.** Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin batera genero-indarkeriaren alorreko sentsibilizazio- eta prebentzio-jardueretan parte hartzeaz gain, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeak eskumena du EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko baliabideen eta programen eraginkortasuna eta helmena neurtzeko aldiari behingo ebaluazioak egiteko. Artikulu horrek hau adierazten du, hitzez hitz: *“Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak aldiari behingo ebaluatu egingo du zein den Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden baliabideen eta programen eraginkortasuna eta irismena. Horretarako, inplikaturik dauden gainerako euskal berri-administrazioek informazioa emango diote beren ardurapean dituzten baliabideei eta programei buruz”*. Ebaluazio horien artean, aipatzekoak dira honako hauek: Emakumeen kontrako etxeko tratu txarren arloko Gizarte Zerbitzuen ebaluazioa (2006); Polizia baliabideen ebaluazioa, emakumeen aurkako etxeko tratu txarrei dagokienez (2007); Baliabide judizialei eta abokatu-laguntzari buruzko ebaluazioa, emakumeen aurkako etxeko tratu txarren alorrean (2007); Baliabide psikologikoei buruzko ebaluazioa, emakumeen aurkako etxeko tratu txarrei dagokienez (2008); Emakumeen aurkako etxeko tratu txarren kasuan laguntzeko osasun-baliabideen irismenaren eta eraginkortasunaren ebaluazioa (2008).

Halaber, azpimarratzekoa da Emakunde genero-berdintasunaren alde egiten duen lana, indarkeriaren alorreko prebentzioarekin eta sentsibilizazioarekin zerikusia duten jardueretan (“Nahiko” eta “Gizonduz” programak) eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin batera emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko sentsibilizazio- eta prebentzio-jardueretan parte hartzen duela, esate baterako, Berdinsarea-Emakumeen Berdintasunaren aldeko eta Indarkeriaren aurkako Euskal Udalerrien Sarean. Hain zuzen, Emakunde bultzatu zuen Berdinsarea, Eudelekin adostutako lankidetzak-hitzarmenaren bidez. Halaber, Emakunde lankidetzan dihardu indarkeriaren alorreko esku-hartzeetan inplikaturik langileen prestakuntza-premien diagnostika egiteko eskumena duten organoekin, 4/2005 Legearen 53. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Amaitzeko, azpimarratu behar da Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea, hain zuzen, Emakunderi atxikitako Batzordea dela, 214/2006 Dekretuak adierazi bezala eta II. Hitzarmen horretan zehazten den bezala. Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzorde horretan parte hartzen dutenak hauek dira: Lehendakaritza Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari den atxikita dago; Idazkaritza, berriz, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariari; eta horien batzordekide dira Eusko Jaurlaritzako osasun, herritarren segurtasun, justizia, gizarte zerbitzu, gizarte bazterketa eta enplegu, etxebizitza, eta hezkuntza alorretako ordezkariak, Botere

**HERRIZAINGO SAILA**

*Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

*Dirección de Atención a las Víctimas
de la Violencia de Género*

Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia, Foru Aldundiak (Arabakoa, Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa), Eudel, Legelarien Euskal Kontseilua, eta Euskadiko Sendagile Elkargo Nagusia.

- **Herrizaingo Saila – Ertzaintzaren Zuzendaritza:** Genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko politikak ezartzearen, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eska diezaioke Ertzaintzaren Zuzendaritzari horretarako behar duen informazio guztia. Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, halaber, Ertzaintzaren Zuzendaritzaren laguntza du, genero-indarkeriaren biktimen alorrean Zuzendaritzak xedatutako zuzentarauak, zirkularrak eta helburuak garatzeko edo aplikatzeko.
- **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila:** Sail horrek genero-indarkeriaren alorreko sentsibilizazio- eta prebentzio-ekintzak gauzatzeko ditu.
- **Justizia eta Herri Administrazio Saila:** Sail horrek berehalako eta doako laguntza juridikoa ematen die Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren, etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren pertsonen.
- **Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila:** Sail horretan izapidetzen eta erabakitzen dira 2006ko urriaren 4ko Aginduan zehaztutako etxebizitza-alorreko laguntzak. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Agindu horrek genero-indarkeriaren biktima izandako emakumeentzako ekintza positiborako neurriak xedatzen ditu.
- **Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila:** Sail horrek kudeatzen eta erabakitzen ditu genero-indarkeriaren biktimentzako enplegu-alorreko laguntzak, abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuan jasota daudenak.
- **Osasun eta Kontsumo Saila:** Sail horren zeregina funtsezkoa da genero-indarkeriaren biktima izan daitezkeen emakumeak zein izan daitezkeen garaiz detektatzeko orduan. Gainera, haren mendeko organoek ere informazio egokia eman eta arreta bideratu behar dute, dagozkien eskumen-eremuetan.
- **Kultura Saila:** Sail horrek, bere eskumenen eremuan, funtsezko zeregina du sentsibilizazio-, prebentzio- eta ikerketa-jardueretan: indarkeria sexistaren aurkako kultura sustatzea, gure Autonomia-Erkidegoko gazteen prestakuntza bultzatzea, eta interes artistikoen eta kulturalen adierazpena bideratzea. Gizarte-hedabideek herritarren sentsibilizazioan duten eragina aintzat hartuta, azpimarratzekoa da hedabide horiek genero-indarkeriaren arazoari eman beharreko tratamendua, batez ere, zuzenbide pribatuko EITB erakunde publikoak eman beharrekoa. Gainera, Gazteriaren Euskal Behatokia sail horren mendean dagoenez, gazteen artean gauzatzen diren genero-indarkeriaren alorreko sentsibilizazio- eta prebentzio-ekintzetan parte hartzen du. Are gehiago, gazteei zuzendutako ekintzen egituraketa Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintzako Zuzendaritza osoaren ardura da.

Horrenbestez, aurreko lerroetan aipatutakoaren ondorioz, koordinazio eraginkorra gauzatu behar dugu Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen, eta genero-indarkeriaren aurkako borrokan eskumen jakin batzuk dituzten Jaurlaritzako sailen artean. Helburu hori kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean genero-indarkeriaren biktimentzako arreta koordinatzeko mekanismoei



buruzko Dekretua onartuta dago jada. Dekretu horren helburua da Jaurlaritzaren politika bateratzea eta emakumeak berriz ere biktima izatea saihestea.

Amaitzeko, kontuan hartu behar da genero-indarkeria oso errotutako egitura-arazoa dela, eta haren konponbidean hainbat erakundek parte hartu behar dutela. Hortaz, erakundeen arteko koordinazioa, eremu guztietan hain beharrezkoa dena, are eta funtsezkoagoa da gizarte-arazo larri hori bideratzeko.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, genero-indarkeriaren alorreko Jaurlaritzaren politika koordinatzeko ardura izateaz gain, herri-erakunde eta herri-administrazio desberdinen artean genero-indarkeriaren prebentzioa eta biktimei laguntzea helburu duten programa integralak prestatzeko ardura ere badu.

EAEn koordinazio hori gauzatzen da Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen bidez (2009ko otsailaren 3an sinatu zen hitzarmen hori, etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta hobea ematea helburu hartuta) eta beste koordinazio-formula batzuen bidez genero-indarkeriaren gainerako motetan.

Aipatu II. Hitzarmenaren zazpigarren klausulan xedatutakoaren arabera, haren iraupena 2009ko abenduaren 31 artekoa da eta adierazi gabe berritzen da, alderdietako batek ez badio uko egiten. 2010eko azaroaren 18an egin zen Jarraipen Batzordearen lehenengo bilera, Erakunde arteko II. Hitzarmenean aurreikusia. Batzordearen egitura Eusko Jaurlaritzaren egitura berrira egokitu zen, 4/2009 eta 471/2009 Dekretuen ondorioz gauzatutako egiturara, alegia. Eta, oraingo legegintzaldian sortutako Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren eraketak eragindako antolaketa-errealitate berria aintzat hartuta, Genero-indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren Jarduteko I. Plana jasotzen duen dokumentuan Batzordearen funtzionamendua egokitu behar dela irizten zaionez, hauxe da osaera: Lehendakaritza Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari dagokio; idazkaritza, berriz, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariari; eta horren batzordekide dira Eusko Jaurlaritzako ordezkariak arlo hauetan: osasuna, herritarren segurtasuna, justizia, gizarte zerbitzuak, gizarte bazterketa eta enplegu, etxebizitza, eta hezkuntza, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia, Foru Aldundiak (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), Eudel, Legelarien Euskal Kontseilua eta Sendagileen Euskal Kontseilua.

III.2. ERREFERENTZIAZKO ESPARRU JURIDIKOA

Genero-indarkeriaren arazoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko erreferentziazko esparru juridikoa honako hau da, eremuen araberrako sailkapena oinarri hartuta:



III.2.1. NAZIOARTEKO ARAUDIA

- Emakumezkoaren kontrako diskriminazio modu guztiak ezabatzeari buruzko Hitzarmena, 1979ko abenduaren 18ko Nazio Batuen Batzar Orokorrak onetsia (1981ko irailaren 3an sartu zen indarrean nazioarteko itun gisa).
- Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzearen gaineko Adierazpena, Nazio Batuen Batzar Orokorraren Ebazpenaren bidez onetsia (1993ko abenduaren 20ko 48/104).
- 50/134 Ebazpena, Nazio Batuen Batzar Orokorraren, 1999ko abenduaren 17koa, Emakumearen Kontrako Indarkeria Ezabatzearen Nazioarteko Eguna azaroaren 25a adierazten duena.
- Giza Eskubideen Munduko Biltzarra, Viena, 1993ko ekainaren 25a.
- Emakumearen gaineko Pekineko Adierazpena, 1995eko irailaren Nazio Batuen Munduko IV. Konferentzian.
- Europako Legebiltzarreko Ebazpena, 1997ko irailaren 16koa, “Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean inolako tolerantziarik”.
- Europako Kontseiluaren Esparru Erabakia, 2001eko martxoaren 15ekoa, zigor-prozesuan biktimaren estatutuari buruzkoa.
- R (2020) 5 zk.ko Gomendioa, 2002ko apirilaren 30ekoa, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak estatu kideei eginda, indarkeriaren kontra emakumeak babesteari buruzkoa.
- Europako Legebiltzarren 803/2004/CE zk.ko Erabakia, 2004ko apirilaren 21ekoa, haurren, gazteen eta emakumeen aurkako indarkeria saihesteko eta eragozteko eta biktimak eta arrisku-taldeak babesteko Erkidegoko ekintza-programa (2004-2008) onartzen duena (Daphne II izeneko programa).
- Europako Legebiltzarren Ebazpena, 2006ko otsailaren 2koa, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokaren egungo egoera eta etorkizuneko jarduerak (2004/2220(INI)).
- Europako Legebiltzarren Ebazpena, 2011ko martxoaren 8koa, Europako Batasuneko gizon eta emakumeen berdintasunari buruzkoa – 2010 (2010/2138(INI)).
- Europako Legebiltzarren Ebazpena, 2011ko martxoaren 8koa, Europako Batasuneko emakumeen txirotasunaren aurpegiari buruzkoa (2010/2162(INI)).

III.2.2.- ESTATUKO ARAUDIA:

- Espainiako 1978ko abenduaren 6ko Konstituzioa.
- 11/2003 Lege Organikoa, irailaren 29koa, atzerritarren segurtasuna, etxeko indarkeria eta haien gizarteratzeari buruzko neurri zehatzak aipatzen dituena.
- 15/2003 Lege Organikoa, azaroaren 25ekoa, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzeko dena.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakume eta gizonen benetako berdintasunari buruzkoa.



- 5/2010 Lege Organikoa, ekainaren 22koa, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzeko dena.
- 35/1995 Legea, abenduaren 11koa, Indarkeriazko eta sexu askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntza emateari buruzkoa.
- 1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoarena.
- 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, Etxeko indarkeriaren biktimak Babesteko Agindua arautzen duena.
- 738/1997 Dekretua, maiatzaren 23koa, Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen Biktimei Laguntzeko Araudia onartzen duena.
- 355/2004 Errege Dekretua, martxoaren 5ekoa, Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Erregistro Nagusia arautzen duena.
- 253/2006 Errege Dekretua, martxoaren 3koa, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren eginkizunak, funtzionamendu-araubidea eta osaera ezartzen duena eta Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duen uztailaren 2ko 1600/2004 Errege Dekretua aldatzen duena.
- 1917/2008 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laneratze programa onartzen duena.

III.2.3. AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARAUDIA

- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuarena.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktima diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituena.
- 124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituena.
- 4/2009 Dekretua, maiatzaren 8koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena, eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena.
- 20/2009 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen dekretua aldatzen duena.
- 471/2009 Dekretua, abuztuaren 28koa, Herrizaingo Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa.
- 29/2011 Dekretua, martxoaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko koordinazio mekanismoei buruz.
-
- 2006ko urriaren 4ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoa.



III.2.4. HITZARMENAK

- Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumei laguntza hobea emateko erakunde arteko I. Hitzarmena. EAE, 2001eko urriaren 18an sinatua.
- Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumei laguntza hobea emateko erakunde arteko II. Hitzarmena. EAE, 2009ko otsailaren 3an sinatua.

III.2.5. LEGE-PROPOSAMENAK

- 122/000226 Lege proposamena, Prozedura Kriminaleko Legea aldatzen duena, genero-indarkeriaren biktimei, Justizia Administrazioa bertarutzen direnean salaketak egitera, informazio eta segurtasun gehiago emateko neurriak hartzeko asmoz. Kongresuan Popular izeneko legebiltzar-taldeak aurkeztuta, 2010eko maiatzaren 28an.
- 122/000256 Lege Proposamena, Genero-indarkeriaren egoeratan dauden adingabeak babesteko arloan. Kongresuan Popular izeneko legebiltzar-taldeak aurkeztuta, 2010eko urriaren 29an.



III.3. PLANAREN ERAGINA ARAUDIETAN

Aurreikusitako arauen garapenari dagokionez, Planaren gauzatzea mailaz maila egitea aurreikusten da. Plana gauzatzeko aurreikusitako jardunbideek honako eragin hauek izango dituzte araudietan:

a) LEGE bidez:

- Genero-indarkeriaren biktimei laguntza osoa emateko Legea.

b) DEKRETU bidez:

- 29/2011 Dekretua, martxoaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko koordinazio mekanismoei buruz.
- Genero-indarkeriaren Euskal Behatokia sortzeko dekretua.
- Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 58.4 artikuluan xedatutakoaren garapena (laguntza bereziak).

c) AGINDU bidez:

- Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoak, 27. artikuluan aurreikusitako laguntza ekonomikoak genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat.
- Genero-indarkeriaren biktimei arreta, solidaritatea eta laguntza ematea sustatzen duten elkarteen eta erakundeentzako laguntzak.

d) HITZARMEN bidez:

- Herrizaingo Sailaren eta Deustuko Unibertsitatearen arteko hitzarmena, Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Unibertsitate Masterrari buruzkoa.
- Berdintasunerako Estatu Idazkaritzaren eta Herrizaingo Sailaren arteko lankidetzaz-hitzarmena, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei informazioa eta aholkua emateko 24 orduko telefono bidezko zerbitzua (016) EAeko 900 840 111 telefonora bideratzeko.
- Herrizaingo Sailaren, Eudel-Euskadiko Udalen Elkarteen, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen arteko lankidetzaz-hitzarmena, BERDINSAREA-Emakumeen Berdintasunaren aldeko eta Indarkeriaren aurkako Euskal Udalerrien Sarea garatzeko.
- Berdintasunerako Estatu Idazkaritzaren, Herrizaingo Sailaren, eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren arteko hitzarmena, tratu txarrak ematen dituzten berreziketarako programei buruzkoa.

**HERRIZAINGO SAILA**

*Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

*Dirección de Atención a las Víctimas
de la Violencia de Género*

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren arteko lankidetzaz hitzarmena, 2010eko urriaren 5eko Gobernu Bileran onetsia.
- Udalerrri txikiekin egindako hitzarmena, Berdinsarearen bidez.



IV. JARDUERA-ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA GAUZATU BEHARREKO EKINTZAK

Genero-indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren Jarduteko Planak hiru ardatz hauek ditu:

- 1. ARDATZA. Genero-indarkeriaren biktimentzako arreta.
- 2. ARDATZA. Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak.
- 3. ARDATZA. Genero-indarkeriaren alorreko sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa.

Ardatz horietako bakoitza helburu estrategiko batzuen bidez zehazten da, eta helburu estrategiko horiek, aldi berean, helburu operatiboen eta jarduketa batzuen bidez gauzatzen dira. Herrizaingo Sailak du haien ardura, eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bidez kudeatzen dira, Eusko Jaurlaritzako zenbait sail eta erakunde autonomo tartean izanik.

Planaren lehenengo ardatza da Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen zerbitzuen eta baliabideen bitartez diziplinarteko arreta osoa ematea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei. Behar-beharrezkoa da, zalantzarik gabe, indarkeria-mota horren biktima diren emakumeei erantzun osoa eta koordinatua ematea, arin eta azkar, emakume horiek baliabide batetik bestera ibil ez daitezzen, haien eskaerentzako erantzun partzialak soilik lortuz.

Bigarren ardatzak, erakundeen arteko koordinazioari eta lankidetzari buruzkoak, genero-indarkeriaren aurkako borrokan parte hartzen duten erakunde eta instituzio guztien arteko lankidetzak du helburu. Erakunde arteko koordinazioa da erabilitako baliabideak optimizatzeko bide eraginkorra. Horrenbestez, bikoiztuta dauden jarduera edo zerbitzu jakin batzuen arazoari erantzuna ematen zaio; eta, hartara, beharrezko beste prestazio batzuen gabezia edo eskasia eragozten da, eta biktimen “bigarren biktimizazioa”, hainbeste kezka eragiten dituen, saihesten da. Bestalde, genero-indarkeriari aurre egiteko prozesuaren edozein arlotan diharduten profesional guztien arteko lankidetzak eta koordinazioa sustatzea funtsezkoa da, aurreikusitako mekanismoak eraginkortasun eta efizientzia handienaz garatzeko.

Hirugarren ardatzari dagokionez, genero-indarkeriaren alorreko sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa aintzat hartuta, aipatzekoa da jardunbidearen helburua dela gizarteak orban larri hori hobeto uler dezan bideratzea. Ardatz horretan jasotako neurrien xedea da diskriminazioaren alde egiten duten gizarte-jarrerak prebenitzea eta saihestea; izan ere, emakumeen aurkako indarkeria sustatzen duten jarrera horiek oraindik ere irauten dute. Gizarte-arazo larri horri aurre egiteko, funtsezkoa da arazoaren benetako larritasunaz jabetzea. Horregatik, gure Autonomia Erkidegoko genero-indarkeriari buruzko datu ziur eta fidagarriak behar-beharrezkoak ditugu, egiten diren ikerketak lehen urrats izan daitezzen, genero-indarkeriak eragindako arazoa egoki bideratzeko ereduak aurkitzeko.



Gizartea oro har sentsibilizatzeko premiarekin batera, arreta berezia merezi duten giltzarrizko kolektiboak eta gizarte-eragileak kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko neurriak hartzea ere aurreikusten da; esate baterako, hezkuntza-alarrean gauzatzeko ekintzak planteatzen dira. Hezkuntzak balioak helarazten dituen aldetik, berebiziko garrantzia du. Hortaz, indarkeriarik eta sexu-diskriminaziorik gabeko jokabide-ereduak sustatuko dira gazteen artean, berdintasunean eta justizian oinarritutako gizartea eraikitzeko premiari buruzko kontzientzia sortzeko bide egokienak baitira.

Azkenaldian ikusten da prebentzioa hezkuntza-alarrean lantzea ezinbestekoa dela; izan ere, estatistikei erreparatuta, erasotzaileen eta biktimen adinean nabari den beherakada oso kezagarria da. Horregatik, gazteak balioetan, berdintasunean, elkarrekiko errespetuan eta gatazkak bakean konpontzen hezteko alorra landuko du Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak. Asmo hori aintzat hartuta, zenbait neurri abiaraziko ditu eta lankidetzeta-hitzarmenak adostuko ditu Jaurlaritzaren beste sail eta erakunde autonomoekin, haien inplikazioa ezinbestekoa baita gai horretan.



IV.1. LEHENENGO ARDATZA: GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO ARRETA

Ardatz honetan, modu integral eta eraginkorrean jardutea aurreikusi da, emakumeek, emakume izateagatik, pairatzen dituzten edonolako indarkeria-egoeren aurrean. Horretarako, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko Jaurlaritzaren politika antolatuko da, emakumei arreta eta informazio hobea emango zaie, eta biktimen eta haien seme-alaben segurtasuna hobeto bermatuko da.

Horrenbestez, bigarren mailako biktimizaziorik gerta ez dadin, erantzun integralak, arinak, azkarrak eta ondo koordinatuak eman behar zaizkie emakume horiei. Horretarako laguntza ematen du Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, arretarako kanal bateratua den aldetik.

Informazioa hobetzea eragiten duten ekintzei dagokienez, aipatzekoa da ekintza horiek oso lagungarriak direla, besteak beste, helburu desiratu bat lortzeko: indarkeriaren kiribiletik ihes egitea erabakitzen duten emakumeen kopuruak gora egin dezala, alegia. Emakumeak indarkeria-egoeretatik eta tratu txarrak ematen dituzten pertsonengandik urruntzeko unean, haien bizitza berriro eraikitzeko arreta, laguntza eta babesa emango dien baliabide-sarea eskura dutela bermatu behar da. Izan ere, askotan, emakume horien hainbat ondasun juridiko (bizitza bera, osasuna, osotasun fisikoa eta abar) arriskuan daude.

Horretarako, lehenengo ardatzaren barruan lau helburu estrategiko bereizten dira:

- 1) Jaurlaritzaren politika antolatzea genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko.
- 2) Genero-indarkeriaren biktima diren emakumei arreta osoa ematea.
- 3) Edonolako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eta haien seme-alaben segurtasuna bermatzea.
- 4) Genero-indarkeriaren kasuetan arreta- eta jarduketa-protokoloak egin eta bete daitezela sustatzea.

Helburu estrategiko horietako bakoitzaren eremuan, helburu operatiboak, garatu beharreko ekintzak eta inplikaturako sailak daude, eta Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza arduratuko da koordinazio orokorraz eta prozesu guztia ikuskatzeaz.

Horrenbestez, Planaren lehenengo jarduera-ardatza osatzen duten lau helburu estrategiko horietako bakoitzari dagozkion helburu operatiboak, ekintzak, sail arduraduna, erakunde kudeatzailea, inplikaturako sailak, eta adierazleak ageri dira honako taula hauetan. Adierazleek I. Plana jarraitzeari eta ebaluatzeari estuki daude lotuta eta lortutako emaitzen berri eta helburuen betetze mailaren berri emango dute, Plan honetan jasotako ebaluazioen ondoren



IV.1.1. 1.1. Helburu Estrategikoa. Jaurlaritzaren politika antolatzea genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko

IV.1.1. Jaurlaritzaren politika antolatzea genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko	
HELBURU OPERATIBOAK	<ul style="list-style-type: none"> Biktimen benetako arazoan eta aurre egin beharreko arazoan jakitun izatea, arreta hobea emateko. Genero-indarkeria pairatzen duten emakumeen biktimizazio bikoitza saihestea. Genero-indarkeriaren alorrean zenbait sailtako organoen bidez gauzatzen diren neurriak eta politikak sistematizatzea.
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko koordinazio-mekanismoei buruzko dekretuak arautzen duen kanal bateratua abian jarri. Baliabide informatiko bat sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko koordinazio-mekanismoei buruzko Dekretua egoki erabiltzeko.
SAIL ARDURADUNA	Herrizaingo Saila
ERAKUNDE KUDEATZAILEA	Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.
INPLIKATUTAKO SAILAK	<ul style="list-style-type: none"> Lehendakaritza: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. Herrizaingoa. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa. Justizia eta Herri Administrazioa. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioak. Enplegu eta Gizarte Gaiak. Osasun eta Kontsumoa.
ADIERAZLEAK	<ul style="list-style-type: none"> Genero-indarkeriaren biktima izan eta Jaurlaritzaren eskumeneko edozein laguntza eskatu duten emakumeen kopurua. Genero-indarkeriaren biktima izan eta genero-indarkeriaren alorreko baliabideak kudeatzeko eskumena duen edozein sailtan arreta jasotako emakumeen kopurua.

Abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuak, Herrizaingo Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak, xedatutakoari jarraiki, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak laguntza zuzena eta pertsonalizatua ematen die biktimei, Herrizaingo Sailaren prestazio, zerbitzu eta baliabideei dagokienez; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta beste administrazioetan dauden baliabideei buruzko informazioa ematen die; biktimen beharrak aintzat hartuta, orientazioa ematen ahalegintzen da, egin beharreko tramiteei buruzko informazioa eta tramite horiek egiteko aholkuak emanez; eta eskumena duten organoetara bideratzen ditu, egoki izanez gero.



- Arretarako kanal bateratuaren helburua da administrazio-jarduera koordinatzeko mekanismo bat egituratzea. Kanal horrek eraginkorra, gizartearen eskaerei erantzuteko gaitasuna duena eta biktimek administrazio-erakundeekin dituen harremanak errazteko modukoa izan behar du. Helburu hori aintzat hartuta, baliabide informatiko bat eratzen da, eta horretarako 153.410,52 euroko aurrekontu-zuzkidura aurreikusten da.

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak kanal bateratu gisa jardungo du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak genero-indarkeriaren biktimeentzako aurreikusitako eta kudeatutako orientazioari, zerbitzuei, prestazioei, laguntzei eta onurei dagokienez. Gainera, informazioa eta orientazioa emango dizkie biktimei, haien eskubideei eta eskura dituzten zerbitzuei buruz aholku osoa eskainiko die, laguntzei eta prestazioei buruzko espedienteak izapidetzeko erraztasunak jarriko dizkie, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mendeandauden genero-indarkeriaren alorreko zerbitzuak koordinatuko ditu.

Haren helburu nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra indarkeria pairatzen duten emakumeengana eta haiei arreta ematen dieten profesionalengana hurbiltzea, Herri Administrazioekiko harremanak erraztea, eta harreman horietan beharrezkoak ez diren joan-etorriak eta eragozpenak saihestea, Administrazioen arteko lankidetzak eta koordinazioa sendotzearen bitartez.

Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko alorrean, arretarako kanal bateratuaren helburu berezia da prozesu burokratikoak ez dadila gero izan “bigarren biktimizazioa”.

Helburu horretarako, Eusko Jaurlaritzaren mendeko organoek kudeatutako prestazioei eta laguntzei dagokienez, asmoa da zuzendaritza bakar batean biltzea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako aholkularitza, eta biktimen egoera eta premien azterketa eta ebaluazioa. Gainera, izapidetu behar diren eskabideak koordinatzeko puntu bakar bat sortzen da.



IV.1.2. 1.2. Helburu Estrategikoa. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta osoa ematea

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta osoa ematea

- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eta informazio hobea ematea.
 - Genero-indarkeriaren edozein mota pairatzen duten emakumeei ematen zaien arretan detektatutako gabeziei erantzuteko formulak bilatzea.
 - Baliabideak optimizatu, arriskuan dauden kolektiboetakoak izateagatik edota diskriminazio anitza pairatzeagatik sortutako premia-egoerei erantzuteko.
 - Emakumeen aurkako indarkeria-kasuen detekzio goiztiarra handiagotzea. Horretarako bidea da hezkuntza-, osasun-, eta gizarte-sistemetan, eta sistema polizial eta judizialtan profesional gehiago jartzea, proaktiboki jardun dezaten, xedatutako protokoloen arabera esku-hartze egokien bidez.
 - Indarkeriaren biktima diren emakumeen erabaki-hartzeak eta haien itxaropenen egokitzeak sostengatzea, arreta osoaren prozesuaren aurretik, prozesu hori gertatzen den bitartean, eta haren ondoren. Horretarako bidea da hainbat baliabide eta prozedura (laguntzazkoak, judizialak, sanitarioak eta polizialak) ulertzeko moduan azaltzeko gaitasuna duten profesional gehiago jartzea inplikaturako zerbitzuetan.
 - Administrazioek jarritako zerbitzuak eta baliabideak erabiltzea erabakitzen duten emakumeen kopurua handitzea, batez ere zerbitzuak eta baliabideak eskuratzeko aukera gutxi duten biktimen kasuan. Horretarako bidea da informazio gehiago ematea, eta informazio hori eskuragarriagoa izatea.
 - Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza ekonomikoak bermatzea.
 - Edonolako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen etxebizitza-eskaerei erantzun hobea ematea.
 - Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak gizartean eta lanean txertatzea bermatzea.
 - Emakumeek genero-indarkeriaren eraginpeko egoeratan egiten duten denbora murriztea.
 - Genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko prozesuetan kalitate-sistemak ezartzea.
 - Edonolako genero-indarkeriaren biktimei berehalako lege-laguntza ematen ahalegintzea.
-
- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntza Osoa emateko Legea izapidetzea.
 - Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako 24 orduko telefono bidezko arreta-zerbitzuaren prestazioak etengabe hobetzea.

HELBURU OPERATIBOAK

EKINTZAK



Genero-indarkeriaren biktima diren emakumei arreta osoa ematea

- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak prestatutako webgunea abiaraztea eta etengabe berritzea, biktimek behar duten informazioa biltzeko eta interesa dutenei “on line” aholkularitza eskaintzeko.
- Justizia Jauregietan dauden Biktimari Laguntzeko Zerbitzuen bidez genero-indarkeriaren biktima diren emakumei ematen zaien laguntza etengabe hobetzea.
- Emakume-salerosketen kasuan, elkarteen eta erakundeen jarduerarako eta koordinaziorako gidaliburuak eta protokoloak prestatzea.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakume etorkinen kalteberatasun berezia aztertzea.
- Emakumeen artean indarkeria-kasuak detektatzeko, arreta emateko eta bideratzeko berariazko gidaliburuak eta beste material batzuk prestatzea eta banatzea, bai inplikaturako profesionalen artean, bai biztanle guztien artean.
- Indarkeriaren detekzio goiztiarrean esku hartzeko protokoloak berrikustea, eta horren ondorioz, protokolo horiek hobetzeko aholkuak aintzat hartzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria-kasuak garaiz detektatzeko lanean inplikaturako kolektibo profesionalen arteko komunikazioa hobetzea.
- Zerbitzuen eta prozeduren funtzionamenduari buruzko informazio osoa ematea indarkeriaren biktima diren emakumei, haien itxaropenei, eskaerei eta hizkerari egokitu; eta informazioa eskuratzeko erraztasuna bultzatzea.
- Indarkeriaren biktima diren emakumei arreta eta babesa ematen diharduten profesionalen komunikazio- eta gizarte-trebetasunerako prestakuntza sustatzea.
- Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko ekimenak bultzatzen dituzten erakundeentzako laguntza-deialdi bat sustatzea.
- Indarkeriaren biktima diren emakumei laguntza-zerbitzuak emateko jarritako instalazioetan arkitektura-oztopoak desagerraraztea.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza ekonomikoen eskabideen jarraipena egitea, haien premiak betetzen diren jakiteko.
- 4/2005 Legearen 58.4 artikuluan aurreikusitako laguntzen lege-garapena eta izapidetzea.
- Edonolako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen etxebizitza-eskaeren jarraipena egitea, bete gabeko premiak zehazteko, eta gabezia horiei erantzuteko mekanismoak jartzeko.
- Indarkeriaren biktima diren emakumei bermatzea enplegurako prestakuntza-ikastaroetan, enplegurako eta prestakuntzarako programetan, enplegu-programetan eta beste enplegu-eskaintza batzuetan sartzeko lehentasuna.
- Lanean txertatzeko ibilbide pertsonalizuak diseinatzea,



Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta osoa ematea

genero-indarkeriaren biktimen premiak eta berariazko egoerak aintzat hartuta.

- EAEko osasun-zerbitzu publikoko sistema informatikoa egokitzea, genero-indarkeriari buruzko informazioa homogeneizatzeko eta premiei egokitzeko.
- Kalitatea kudeatzeko sisteman etxeko indarkeria edo/eta genero-indarkeria kudeatzeko prozesua hobetzea.
- Kalitatea kudeatzeko sisteman sexu-askatasunaren aurkako delituak kudeatzeko prozesua abian jartzea.
- Genero-indarkeriaren biktimei berehala ematen zaien laguntza juridikoa hobetzea.

SAIL ARDURADUNA	Herrizaingo Saila
ERAKUNDE KUDEATZAILEA	Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.
INPLIKATUTAKO SAILAK	<ul style="list-style-type: none"> • Herrizaingoa. • Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa. • Justizia eta Herri Administrazioa. • Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioak. • Enplegu eta Gizarte Gaiak. • Osasun eta Kontsumoa. • Lehendakaritza: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea.
ADIERAZLEAK	<ul style="list-style-type: none"> • “On line” kontsulten kopurua. • Telefono bidezko kontsulten kopurua. • Genero-indarkeriaren biktima izan eta Biktimari Laguntzeko Zerbitzuetan arreta jasotako emakumeen kopurua. • Ofizioko txandan arreta jasotako emakumeen kopurua. • Ertzaintzaren, udaltzaingoan edo epaitegien aurrean salaketak jarri dituzten emakumeen kopurua. • Osakidetzan arreta jasotako genero-indarkeriaren biktimen kopurua. • Lan-taldeen jardueraren ondorioz abian jarritako ekintzen kopurua. • Zeinuen lengoian komunikatzeko gai diren profesionalen kopurua. • Zentzumen-urritasunak dituztenentzako 24 orduko telefono bidezko berariazko zerbitzuaren bitartez arreta jaso duten emakumeen kopurua. • 24 orduko telefono bidezko itzulpen-zerbitzuaren bitartez arreta jaso duten emakumeen kopurua. • Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzan arreta jasotako emakumeen kopurua. • Tratu txarren lehen jazoeraren ostean salaketa jarri duten emakumeen kopurua. • Genero-indarkeriaren biktima izandako emakumeen asebetetze-maila, arreta-prozesuaren hasieran eman zaien informazioari



Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta osoa ematea

dagokionez.

- Genero-indarkeriaren biktima izan eta Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko zerbitzu eta baliabideak erabili dituzten emakumeen kopurua.
- Genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza ekonomikoak eskatu dituzten emakumeen kopurua.
- Laguntza ekonomikoa jasotzeko behar den denbora.
- Genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza ekonomikoa jaso duten emakumeen kopurua.
- Genero-indarkeriaren biktimen etxebizitza-eskaerei emandako erantzunaren ehunekoa EAEn.
- Genero-indarkeriaren biktimen okupazio-ehunekoa EAEn.
- Tratu txarren biktima diren emakumeentzako berriazko eskaintzei heldu dieten biktimen kopurua.
- Genero-indarkeriaren biktimak enplegatzeko laguntza-programetan parte hartu duten enpresa publiko eta pribatuaren kopurua.
- Tratu txarren biktima diren emakumeek pairatzen dituzten egoeren iraupena.
- Genero-indarkeriaren biktima izan eta Ertzaintzaren arreta jasotako emakumeen gogobetetzea.
- Genero-indarkeriaren biktima izan eta Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren arreta jasotako emakumeen gogobetetzea.
- Genero-indarkeriaren biktimen gogobetetzea, berehalako laguntza juridikoari dagokionez.
- Tratu txarrak ematen dituztenen berreziketarako programan parte hartzen duten gizonen kopurua.

Genero-indarkeriari buruzko informazio estatistikoa lagungarria da gure aurrean dugun eta aurre egin behar diogun arazo horren hedadura ikusteko. Hala eta guztiz, datu horiek errealitatearen alderdi bat soilik adierazten dute. Izan ere, emakume askok gizartearen orban hori isilean pairatzen dute egunero, eta datu ofizialek ez dute haien berririk ematen.

“Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak EAEn” 2009ko urteko txostenak, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarenak, adierazi bezala, *genero-indarkeriaren eraginez* 4.859 *biktimizazio* gertatu ziren gure Autonomia Erkidegoan 2009an, indarkeria-moten arabera honela banatuta: Biktimizazioen %71 bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren ondorio izan ziren, %23 familia barruko indarkeriak eragindako biktimizazioak (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria sartu gabe), eta %6 sexu-askatasunaren aurkako delituei dagozkienak.

Genero-indarkeriaren ondorioz, 2010eko urtarriletik abuztura bitartean gertatutako 2.780 biktimizazioak 2.376 *emakumek* pairatu dituzte. Emakume horiek



guztiak genero-indarkeriaren *biktima* izan dira, behin edo gehiagotan, urtearen lehenengo zortzi hilabeteetan.

Ertzaintzak 2.780 biktimizazio horien berri izan du; 1.934 kasutan *salaketa* baten ondorioz jakin du, eta salaketa horien %85 biktimak berak jarritakoak dira.

Datuek adierazten dute salatutako 1.934 gertaera horiek 1.638 *emakumek jarritako salaketei* dagozkiela, eta beste 738 emakumek erabaki dutela salaketarik ez jartzea, polizia-kidegoak argitze-agiria egin arren. Hau da, urtearen lehenengo zortzi hilabeteetan edozein motatako genero-indarkeriaren jazoera baten biktima izan diren 2.376 emakume horien %31k ez du salaketarik jarri. Askotan, hainbat faktorek eragin dezakete emakumeek urrats garrantzitsu hori ez ematea: errepresalien beldurrak, babesa ematen duten legeak eta laguntzeko eta zaintzeko dauden baliabideak ez ezagutzeak, arrazoi kulturelak, baita mendekotasun emozionalak eta ekonomikoak ere. Horregatik, informazioan, kontzientziazioan eta sentsibilizazioan eragin behar da, batez ere. Ikuspegi hori da, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bidez abian jarri dituen azken kanpainen eta ekintzen muina.

Gainera, azpimarratzekoa da *24 orduko Telefono Bidezko Arreta Zerbitzuan (900 840 111)*, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren mendean dagoen zerbitzuan alegia, jasotako deien kopurua. 2009an 2.874 dei jaso ziren, hilean 232 dei batez beste, eta 16 minutuko batez besteko iraupena izan zuten; hala ere, kasu batzuetan 60 minututik gorako deiak izan ziren.

2010eko lehenengo seihilekoan 1.535 dei jaso dira, hilean 255 dei batez beste; aurreko urtean baino zertxobait gehiago. Deien %46,5 goizetan egiten dira eta %79 lanegunetan.

Kasuen %73,8n biktimak berak deitzen du eta deien %20 pasatxo familiako batek edo inguruko batek egiten ditu. Behin eta berriz esan dugun bezala, genero-indarkeria guztion arazoa da, eta guztiok lanean jarraitu behar dugu, genero-indarkeria pairatzen duten emakumeen ingurukoak ez daitezen isildu, eta egoeraren salaketan aktiboki parte har dezaten.

Adinari dagokionez, aipatzekoa da Telefono Bidezko Arreta Zerbitzura deitzen duten emakumeen %45 pasatxo 20-39 urtekoak direla eta datu hori bat dator genero-indarkeriaren kasu gehien agertutako adin-tartearekin. Zerbitzua erabiltzen duten emakumeek espazio seguru bat bilatzen dute, sostengu emozionala emango diona, haien egoerari buruz hitz egiteko eta indarkeria-egoerarekin zerikusi zuzena duen informazioa eskatzeko. Profesional-taldea lagungarria da: sostengu emozionala ematen du eta erabakiak hartzeko prozesuan laguntzen du.

Erabiltzaileen jatorri geografikoari dagokionez, datu horri buruz jasotako informazioa aintzat hartuta, aipatzekoa da %79 EAEkoak edo Estatukoak direla. Emakumeen %16 Latinoamerikatik etorriak dira, %2 Europako beste estatuetatik eta



%2,7 Afrikatik. Nolanahi ere, datu horiek berriz ere adierazten dute bertako emakumeek erabiltzen dutela, batez ere, zerbitzu hori.

Genero-indarkeriaren biktimentzat 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako *laguntza ekonomikoak*, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak kudeatuak, aintzat hartuta, 2009an 72 eskabide aurkeztu ziren. Eskatutako laguntzetatik 36 eman ziren, 28ri ezezkoa eman zitzaien, eta urte-amaieran 8 geratu ziren erabaki gabe, eskatutako agiriak ez aurkezteagatik.

2010 urteari erreparatuta, abuztuaren 31 bitartean, genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza ekonomikoa eskatzeko 82 eskabide izapidetu dira (2010ekoak 78 dira, eta beste 4ak 2009an erabaki gabe geratu zirenak). 82 eskabide horietatik 73 erabaki dira (56 eman dira eta 17ri ezezkoa eman zaie); hau da, 9 erabaki gabe daude, agiriak aurkeztu behar dituztelako. Gainera, aipatzekoa da 2010eko abuztuaren 31 bitartean 286.272 € gastatu direla esleitutako aurrekontutik.

Jasotako *etxebizitzaren alorreko laguntzei* dagokienez, 2006ko urriaren 4ko Aginduan, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriak zehazteari buruzkoan, genero-indarkeriaren biktima zirela egiaztatutako 153 emakumeren espedienteak izapidetu ziren 2009an eta errentan hartzeko etxebizitzak esleitzeko prozeduretan parte hartu zuten, eskatutako udalerrri guztietan.

Bestalde, 2009an 16 emakumeri etxebizitza esleitu zitzaien zuzenean; eta 2010eko abuztuaren 31 bitartean, genero indarkeriaren biktima izan eta etxebizitza eskatu duten 9 emakumeri esleitu zaie zuzenean.

Enplegurako laguntzei dagokienez, Gizarteratzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatze laguntzak arautzen dituen 329/2003 Dekretuak diruz lagun daitezkeen kolektiboen artean sartzen ditu “etxeko indarkeriaren biktimak izan diren pertsonak”, eta 6.h) artikulua honela adierazten du: “... etxeko indarkeriaren biktimak izan diren pertsonak: horiek edo bere seme-alabek ezkontidearen edo antzeko afektibitate-harreman baten bidez era egonkorrean lotuta dagoen edo egon den bikotekidearen indarkeria fisikoa edo psikikoa jasaten dutenean ulertuko da pertsona horiek adierazitako egoeran daudela, betiere gertaera horiek dagokien polizia-erakundearen edo erakunde judizialaren aurrean salatu badira”. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak kontratatze, 2005az geroztik, 17 espediente onetsi dira; horietako bi bakarrik dira 2009koak eta 2010ean espediente bakarra izan da oraingoz.

Hizpide dugun arazoaren benetako hedadura adierazteko baliagarria den beste datu bat *Babes Aginduak* buruzkoa da. Agindu horiei buruz dugun informazioa aintzat hartuta, bi gauza bereizi behar dira:

- *Eskatutako Babes Aginduak*: Ertzaintzak epaitegietara bidalitako Babes Aginduak. 2009an genero-indarkeriaren biktimek 1.519 Babes Agindu eskatu zituzten; haietatik %86 bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako



HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Atención a las Víctimas
de la Violencia de Género

indarkeria-egoeraren ondorioz, eta eskaeren %14 familia barruko indarkeriatatik. Hain zuzen, 2009ko datuek adierazten dute eskatutako Babes Agindu guztien erdia baino gehiago direla oraindik ere erasotzailearen bikotekide diren emakumeek eskatuak (emazteek, neska-lagunek, emaztegaiek), eta %35 direla bikotekide ohiek eskatuak (emazte ohiek, neska-lagun ohiek, emaztegai ohiek). 2010ari dagokionez, lehenengo seihilekoan 607 babes agindu eskatu dituzte genero-indarkeriaren biktimek; haietatik %88 bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindako indarkeria-egoerengatik.

- *Epaitegiek emandako Babes Aginduak*: epaitegiek emandako eta Ertzaintzak jasotako babes agindu guztiak aintzat hartzen dira; hortaz, Ertzaintzak izapidetutakoez gain, kontuan hartzen dira, halaber, udaltzaingoez izapidetutakoak eta zuzenean epaitegietan eskatutakoak. Alabaina, ez dira sartzen neurri zibilak soilik ezartzen dituzten babes aginduak, ezta armak erabiltzeko debekua soilik jartzen duten babes aginduak ere, Guardia Zibilaren eskumenekoak baitira.
- Gainerako babes aginduak, neurri penalak ezartzen dituztenak (komunikazio-debekua, urruntzeak...) kontuan hartzen dira. Horrenbestez, 2009an 1.950 Babes Agindu eman ziren eta 2010eko lehenengo seihilekoan 902 Babes Agindu eman dira.

Amaitzeko aipatu behar da, *Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren (BLZ)* azken urteotako jarduerari erreparatuta, genero-indarkeriaren alorreko kasuen kopurua berdintsua izan dela urtero: 1.700 kasu urtean, gutxi gorabehera.

Horrenbestez, genero-indarkeriaren biktima diren emakumei informazioa eta laguntza ematen die Eusko Jaurlaritzak, hainbat baliabideren bitartez: Genero Indarkeriaren Biktimentzat 24 orduko Telefono Bidezko Arreta Zerbitzua (900 840 111); Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak, Justizia Jauregietan daudenak, eta, genero-indarkeriaren biktimen kasuan, 2011tik aurrera Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak kudeatuak; eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza bera. Zuzendaritza horrek, gainera, genero-indarkeriaren biktima diren emakumei informazioa eta aholkua ematen die, behar izanez gero, eta dagozkien zerbitzuetara eta gizartearen orban horren biktimei laguntzen diharduten profesionalengana bideratzen ditu.

Osasun-zerbitzuek eta zerbitzu polizialek, dagozkien eskumen-eremuetan ematen duten arretan, informazio egokia ere eman behar dute eta biktimak bideratu behar dituzte. Funtsezkoa da zerbitzu horiek etengabe hobetzea, kalitate-irizpideen arabera, zerbitzuak eta baliabideak eskuratzeko aukera gutxi dituzten emakumeak aintzat hartuta. Horretarako bidea da informazio gehiago ematea eta informazio hori eskuragarriagoa izatea.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumei arreta osoa emateak ondorioz dakar biktima horiek laguntza ekonomikoak jasotzen dituztela bermatzen ahalegintzea eta etxebizitza behar dutenei ematea, arretaren prozesu guztian eta biktimak gizartean eta lanean txertatzen direla bermatzea, horretarako programak egokituz.



Orain arte egindako diagnostikoe² adierazten dute genero-indarkeria pairatzeko arrisku handiagoa duten kolektiboak daudela; esate baterako, etorkinak, gizarte-bazterketarako arriskuan dauden kolektiboetako emakumeak edo diskriminazio anitzeko egoeran daudenak. Halaber, aipatzekoa da indarkeria-mota jakin batzuk oso hedatuak egon arren, haiei erantzutean hutsune handiak daudela gaur egun, eta hutsune horiek eragozten dutela indarkeria pairatzen duten emakumeen premiei egoki erantzutea.

Horren haritik, ahalegin handiagoak egin behar dira sexu-erasoei eta sexu-esplotaziorako gizaki-salerostetei aurre egiteko; eta, horrenbestez, aipatzekoa da legegintzaldi honetan Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntza osoa emateko Legea izapidetzea aurreikusita dagoela. Alde horretatik, aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzak, 2009ko azaroaren 17ko bileran, legegintzaldi honi dagokion legegintza-egutegia (2009-2013) onartu zuela eta horretan ikus daiteke legegintzaldiko ekimen hori. Ondoren idatziko dira bere oinarriak:

“Emakumeen eta gizonen arteko Legearen VII. kapitulua aldatzean datza. Horrek berezko ezaguerriak emango dizkio araudiari, gaiak duen inportantzia kontuan hartuta eta parametro hauen arabera:

Etxeko eta sexu-erasoen indarkeriaren biktimeen kontzeptuaren ordezk genero-indarkeriaren edo emakumezkoen aurkako indarkeria kontzeptua sartuko da, arautzeko eremua kontzeptualki handitzea.

Genero-indarkeria antzematen eragitea, horretarako mekanismoak eta prozedurak aurreikusiz.

Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko eta babesteko jardueren politikak berriro definitzea. Abiapuntua izango litzateke araudia berrestea, ez bakarrik administrazio-jardueren ildoak, genero-indarkeria mota guztietako biktimentzat benetako eskubide subjektiboak baizik, eta ez, orain bezala, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimentzat bakarrik.

Ildo horretatik, Legeak definituko du genero-indarkeriaren egoeratan dauden emakumezkoen eskubideen zerrenda, aurrezaintza, arreta, laguntza, babesa, berreskuratzea eta erabat konpontzeari zuzenduta. Eskubide horien artean, haiek egongo lirateke: benetako babesa, laguntza juridikoa izateko eskubidea, arretarako eta osasun-laguntza bereziko eskubidea, laguntza psikologikoaren eskubidea, etxebizitza eskuratzeko eskubidea, enplegua eta lanerako prestakuntza izateko eskubidea, eskola eremuko eskubideak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubideak.

² Besteak beste, 2009an BERDINTASUN MINISTERIOAK egindako txosten eta planak: Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa aplikatzeari buruzko ebaluazio txostena; Genero-indarkeriaren aurka Laguntzeko eta Prebenitzeko Plana atzerriko etorkinei zuzenduta; Sexu-esplotaziorako helburuarekin gizakiak salerostearen aurkako Borroka-Plan Integrala.



HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Atención a las Víctimas
de la Violencia de Género

Eskubide horiek gauzatzeko, laguntzeko eta babesteko sistema osoa prestatuko da, horretarako, emakumeak izate hutsagatik jasaten duten edozein indarkeria mota jasaten duten emakumeak babestean eragina izango duena.

Aipatu eskubideak zehazten eta gauzatzeko dituzten prestazio zuzentzaile eta laguntza-prestazio horietako asko aurretik dagoen araudian aurreikusi ziren, hala ere etxeko eta sexu-erasoen indarkeriaren biktimei mugatzen zen. Horrelako egoeretan eta hala merezi badute, babes eremua egungo araudian ikusi ez diren beste suposamendu batzuei zabalduko litzateke.

Bestelako kasuetan, prestazioak jasotzeko eskatutako eskakizunak berrikusi beharko dira, pilotutako esperientziaren arabera. Edota prestazio-zuzentzaile eta laguntza-prestazioak ex novo sortu.

Era berean, genero-indarkeriaren biktimen eskubideak defendatzeko administrazioen zenbait jarduera legeak babestean datza, esaterako arrazoiz horregatik zigor-prozeduretan bertaratzzea, beste autonomia erkidego batzuetan gertatu bezala.

Azkenik, genero-indarkeriaren emakumezko biktimei laguntzeko eta berreskuratzeko osorako sarea hobetu eta berriro antolatu beharko litzateke.

Amaitzeko, kontuan hartu behar da genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko programak instituzioen bidez gauzatzeko direla, baina irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeek ere funtsezko betekizuna dutela zeregin horretan. Horrenbestez, 2009an abian jarri zen, hurrengo urteetan ere jarraitzeko asmoz, genero-indarkeriaren biktimei arreta, solidaritatea eta laguntza ematea sustatzen duten erakundeentzako eta elkarteentzako laguntzak.



IV.1.3. 1.3. Helburu Estrategikoa: Edonolako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eta haien mendeand dauden pertsona guztien segurtasuna bermatzea

Edonolako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eta haien mendeand dauden pertsona guztien segurtasuna bermatzea³

HELBURU OPERATIBOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Genero-indarkeriaren alorreko legezko neurriak bete daitezela zaintzea. • Biktima diren emakumeei laguntzea, salaketa jartzeko beldurra gainditzten edo edozein laguntza eskatzen.
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Adituek ebaluatzea zer alderdi sendotu behar diren genero-indarkeriaren biktimen segurtasunerako. • Laguntza-tresnak jartzea, erasotzaileak urruntze-aginduak beti zorrotz betetzen dituela bermatzeko. • Genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza psikologikoa sendotzea, haien ahultasuna eta ahultasun-irudipena murrizteko, sendotasun psikologikoa handiagotzeko, eta egoera eragileei aurre egiteko defentsa-mekanismoak hobetzeko. • Arriskuaren ebaluaziorako baliabide bat prestatzea sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketen kasuetarako. • Bikotekidearen aurkako arrisku larria aurreikusteko baliabidea etengabe hobetzea. • Estatuko gainerako Segurtasun Indar eta Kidegoekin koordinatzea. • Emakumeek gure Autonomia Erkidegoan duten segurtasun-pertzepzioari buruzko azterketa egitea.
SAIL ARDURADUNA	Herrizaingo Saila
ERAKUNDE KUDEATZAILEA	Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.
INPLIKATUTAKO SAILAK	<ul style="list-style-type: none"> • Herrizaingoa. • Justizia eta Herri Administrazioa.
ADIERAZLEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Genero-indarkeriak eragindako biktimizazioen kopurua. • Genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeen kopurua. • Salaketa jarri duten emakumeen kopurua. • Babes-neurri polizialen bat duten emakumeen kopurua. • Babes-neurri polizialen batez besteko iraupena. • EAEko biztanleen segurtasun-pertzepzioaren banaketa ehunekotan, sexuen arabera banatuta.

³ Ulertzen da emakumearen mendekoak direla honako pertsona hauek: seme-alabak, eta genero-indarkeriaren biktima den emakumearen laguntza ekonomikoa edo asistentziala behar duten pertsona guztiak (adinagatik, gaixotasunagatik edo gutxitasunen bat izateagatik).



Biktima diren emakumeak eta haien seme-alabak fisikoki erasotzailearengandik babestea funtsezkoa da genero-indarkeriaren tratamenduan, eta arlo horretan gauzatzen da poliziaren ekarpen garrantzitsua.

Zalantzarik gabe, biktimak eta haien seme-alabak fisikoki erasotzailearengandik babestuta egongo direla bermatzea garrantzi handikoa da genero-indarkeriari aurre egiteko. Ildo horretan azpimarratu behar dugu Ertzaintzak betetzen duen zeregin garrantzitsua; eta eginbide hori hobetzea Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren lehentasun bat da.

- *bizkaitzainen* bidez, 7 emakumek zuten etengabeko babes bermatuta 2010eko abuztuaren amaieran. Emakume horietatik 2 Bizkaian bizi dira, eta 5 Gipuzkoan.
- 13 erasotzaile eta biktimak *eskumuturreko bilatzaileak* zituzten 2010eko abuztuaren amaieran (11 Bizkaian eta 2 Gipuzkoan).
- 2010eko abuztuaren amaieran 164 emakumek beren babeserako Ertzaintzak emandako sakelako telefonoa zuten: emakume horietatik 34 Araban bizi dira, 68 Bizkaian, eta 62 Gipuzkoan.
- 2005ean funtsezko baliabidea ezarri zen, “etxeko indarkeria eta genero-indarkeria kasuetan Ertzaintzaren jardunbidearen kalitatea kudeatzeko sistema” gauzatzearren: *EI/GI espedienteak* aplikazio informatikoa. Aplikazio horretan, hain zuzen, genero-indarkeriaren biktimei babes osoa emateko ezinbestekoak diren datu polizialak jasotzen dira. Aplikazio dinamiko eta bizia da, helburua gauzatzeko beharrezko bizkortasuna eta malgutasuna dituen. 2009 urtean 3.428 EI/GI espediente ireki ziren. Espediente batean biktima bat edo gehiago sar daitezkeenez, 3.690 emakumeri ireki zitzaien espedientea. Horrenbestez, abenduaren 31n 4.325 espediente aktibo zeuden, eta 4.885 emakumek zuten babes-neurri polizialen bat. 2010. urteari dagokionez, aipatzekoa da 2010eko abuztuaren 31n 4.361 espediente aktibo zeudela eta guztira 4.919 emakumek zutela babes-neurri polizialen bat.

Ertzaintza herri-zerbitzurako polizia gisa eratuta dago eta Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona guztien eskubide eta askatasunen egikaritza askea bermatu behar du. Ertzaintzaren funtsezko oinarria da, besteak beste, jardunbidea etengabe berritzea, delitu-mota berriei aurre egiteko. Gainera, beste polizia-kidegoekin, justiziako atalekin eta beste erakunde batzuekin koordinatuta lan egiten du, funtzionamendu bizkorragoa eta eraginkorragoa lortzeko. Genero-indarkeriaren arazoari ahalik eta tratamendu hobereana ematearren, berariazko prozedura bat eratu du, gaur egun indarrean dagoen araudiak jarritako baldintzak betetzen dituen, eta Ertzaintzak bere gain hartu dituen kanpo-konpromisoerantzuzten diena.

Genero-indarkeriako ekintzen ondorioz gauzatu beharreko jardueretarako prozedurak jardunbide-sistema bat zehazten eta ezartzen du, fase bakoitzeko ardurak argitzen ditu, jardunbide-ereduak estandarizatzen ditu, eta egindako jardueren egokitasuna bermatzen du, etengabe hobetzeko mekanismoak dituen kontrol-plan



baten bidez. Prozedura hori guztia kalitatea kudeatzeko sistemaren barruan dago⁴. Izan ere, UNE-EN-ISO arauak xedatutako parametroen arabeko kalitatea kudeatzeko sistema ezartzen ari da Ertzaintzaren Zuzendaritza, eta sistema horrek prozesu konplexuak egituratzen ditu, hala nola atxiloketa, genero-indarkeriaren tratamendua eta auzitegi-genetika⁵.

Horrenbestez, Ertzaintzak EI/GI biktime baten berri izan bezain laster (salaketagatik, jarduteagatik, ofizioz...), biktimaren egoera ebaluatzen du, eta kasu eta egoera bakoitzean egoki diren babes-neurri polizialak esleitzen dizkio. Halaber, espediente bat irekitzen da, eta han jasota geratzen dira biktimari eta erasotzaileari buruzko informazio guztiak.

Arrisku-egoera ebaluatzea, eta ebaluazio horren ondorioz babes-neurri polizialak hartzea operazio-buruari dagokio, lehenik.

Gero, espedientea bideratzeko ardura duen taldeak aztertu behar du, eta hartutako erabakia eta jarritako babes-neurri polizialak berretsi edo aldatu behar ditu. Ebaluazioaren arduradunak bere gain hartzen du, halaber, EI/GI espedientearen xehetasun guztiak jasotzeko ardura. Arriskua ebaluatzea eta babes-neurri polizialak hartzea berriro egin behar dira kasuari buruzko datu berriak jakiten diren bakoitzean; eta, edonola ere, berriro egin behar dira kasu hauetan guztietan:

- EI/GI jazoera bati buruzko “Zutabe” jardute bat (baliabide informatikoa) itxi ostean.
- EI/GI salaketa bat aurkeztu ostean.
- EI/GI jazoera bati buruzko argitze-agiria epaitegira lehen aldiz bidali ostean.
- Babesari buruzko epaile-erabakia jaso ostean.
- Biktimarekin aldi behingo elkarrizketa egin ostean.

Arrisku mailaren arabera, babes-neurri polizial batzuk nahitaez eman behar ditu Ertzaintzak, eta beste batzuk, berriz, biktimari eskaintzen zaizkion hautazko neurriak dira.

Oinarritzko arrisku-mailan, nabitaezkoak dira:

- Auto-babeserako neurrien arloko prestakuntza.
- Ausazko egiaztatzeak telefono-deien bidez.

Oinarritzko arrisku-mailan, hautazkoak dira:

- Ausazko bisitak biktimari.
- Lekualdatzeak eta laguntzeak.
- Babes-operatibo bereziak.

⁴ Genero-indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren Jarduteko I. Plana idazteko egunean, genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktimentzako arretaren kalitatea kudeatzeko sistema berrikustea azterketa-fasean dago, biktimei babes eta arreta hobea emateko.

⁵ *Predicción del riesgo de homicidio y de la violencia grave en la relación de pareja. Hain zuzen, arriskua ebaluatzeak eta babes neurriak hartzeko tresnak*, 113. orr.



HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Atención a las Víctimas
de la Violencia de Género

- Prebentzio-jarduerak babes-eremuan.
- Prebentzio-jarduerak egunerokoan.
- Baliabide teknologikoak: “Bortxa” telefonoa eskaini (sakelako telefonoa, Ertzaintzarekin zuzeneko harremana izateko eta baliabideak berehala mobilizatzeko). Sistema hori erabiltzen da, biktimekin ahalik eta harreman zuzenena eta azkarrena izateko.
- Erasotzailea zaintzea eta haren jarraipena egitea.

Arrisku-maila *altuan* eta *berezian*, *nabitaetzkoak* dira:

- Auto-babeserako neurrien arloko prestakuntza.
- Ausazko egiaztatzeak telefono-deien bidez.
- Baliabide teknologikoak: “Bortxa” telefonoa eskaini.

Arrisku-maila *altuan* eta *berezian*, *hautazkoak* dira:

- Ausazko bisitak biktimari.
- Lekualdatzeak eta laguntzeak.
- Babes-operatibo bereziak.
- Prebentzio-jarduerak babes-eremuan.
- Prebentzio-jarduerak egunerokoan.
- Erasotzailea zaintzea eta haren jarraipena egitea.

Arrisku-maila *berezian* etengabeko zaintza ere *hautazkoa* da.

Espedientea bideratzeko ardura duen taldeak erabakiko du espediente hori behin betiko noiz itxiko duen edo behin-behinean noiz artxibatuko duen. Behin-behinean artxibatzeak aldi baterako egoera dakar, eta espedientea bideratzeko ardura duen taldeak berrikusi egin beharko du geroago, egoera aldatu den ikusteko eta behin betiko ixtea edo kasua berriz irekitzea erabakitzeko.

EI/GI espediente bat behin-behinean artxibatu daiteke edota behin betiko itxi daiteke honako kasu hauetan:

- Biktima EAEtik kanpo bizi dela, bi hilabetez gutxienez, jakinez gero.
- Babes-neurriak hartzeko epaile-erabakirik indarrean ez badago, biktimen arriskua altua edo berezia ez bada, eta biktimak adierazten badu azken hiru hilabeteetan ez duela tratu txarrik pairatu. Azken kasu horretan, indarkeria-jasoaldirik gabeko epe baten ondoren behin-behinean artxibatzen da eta hurrengo hiru hilabeteetan egoera berdina izanez gero, espedientea behin betiko ixten da.
- Erasotzaileak mugitzeko askatasunik ez badauka; hau da, atxilotuta, presondegian, ospitalean... baldin badago.
- Erasotzailea edo biktima bera hilez gero.
- Udaltzaingoak kasuaren ardura duenean.



Operazio-buruak edo espedientea bideratzeko ardura duen taldeak erabakitzen badu babes-neurri polizia indargabetzea, espedientean honako datu hauek adierazi behar ditu:

- Erabakia noiz hartuko den (eguna eta ordua).
- Erasotzailea zenbat denboran egongo den mugitzeko askatasunik gabe, aurreikuspenen arabera.
- Indargabetzearen arrazoia.
- Erasotzaileak egoera horretan jarraitzen duela egiaztatzeko egin beharreko kudeaketa, eta nork egin behar dituen kudeaketa-lan horiek.

Itxitako edo behin-behinean artxibatutako espedienteak berrireki behar dira biktimak berriro EI/GI jazoerak pairatu dituela jakinez gero.

Dena dela, kasua udaltzaingo bati badagokio ere, udaltzaingo horrekin batera biktima babesten arituz gero, neurriak abian jarriko dira eta gauzatzen diren eginkizunak espedientean adieraziko dira.

Indargabetzea operazio-buruak aldeztu aurretik erabakia izanez gero, espedientea bideratzeko ardura duen taldeak aztertu beharko du, erabaki hori berresteko, aldatzeko edo baliogabetzeko. Espedientean adierazi behar da ebaluazio berri bat egin dela, eta hartutako erabakia eta ezarritako babes-neurri polizia berresten edo aldatzen direla.

Indarkeria-mota horren tratamenduan egindako aurrerabidea eta gogobetetze-inkestak emaitzak aintzat hartzekoak izan arren, oraindik ere lan-metodologiak berri behar dira, aurreikus daitezkeen hainbat aldaketa kontuan hartuta: legegintza-alarrekoak, inplikaturako beste eragileekiko harremani buruzkoak, segurtasuna bermatzeko ekintza berriak abian jartzea, eta arlo horretako koordinazioa, beste indarkeria-mota batzuei aurre egiteko; esate baterako, sexu-indarkeriari, eta zehazki, sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketei aurre egiteko.



IV.1.4. 1.4. Helburu Estrategikoa: Genero-indarkeriaren kasuetan arreta- eta jarduketa-protokoloak egin eta bete daitezela sustatzea

Genero-indarkeriaren kasuetan arreta- eta jarduketa-protokoloak egin eta bete daitezela sustatzea

HELBURU OPERATIBOAK

- Genero-indarkeriaren kasuetarako, arreta eta jarduera protokoloen hedadura geografikoa handitzea, Euskal Autonomia Erkidegoko geografia osora zabalduz.
- Sexu-jazarpenei eta jazarpen sexistei aurre egiteko prebentzio- eta jarduketa-protokoloak ezartzen dituzten erakunde publiko eta pribatuen kopurua handiagotzea, biztanle okupatuen proportzio handiagoa biltzen duten jarduera-adarrei lehentasuna emanez.

EKINTZAK

- Protokoloak egiteko prozesua ikuskatzea eta aholku ematea.
- Protokoloak prestatzea bultzatzea eta prozesu horretan parte hartzea.
- Ertzaintzaren eta udaltzaingoen arteko koordinazioa sustatzea, genero-indarkeria kasuetan jarduera poliziala hobea izan dadin.
- Arriskuan edo diskriminazio anitzeko egoeran dauden emakumeen berariazko premiei erantzutearren, arreta- eta jarduketa-protokoloetan egin beharreko hobekuntzak aztertzea.
- Protokoloen bidez sustatutako jardunbideen emaitzen eta eraginkortasunaren jarraipena egitea, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeari dagokionez, eta, berariaz, arriskuan edo diskriminazio anitzeko egoeran dauden emakumei laguntzeari dagokionez.
- Emakume gazteen aurkako indarkeria aztertzea, eta emakume horiek laguntza-sistemetan sartzeko dauzkaten zailtasunei eta eragozpenei erreparatzea, protokoloen zenbait alderdi aldatzeko, beharrezkoa izanez gero.
- Osasun-sistematik abiatuta, bide azkarragoak eratzea, genero-indarkeriaren biktimei diren Euskal Autonomia Erkidegoko emakumei kalitate handiagoko arreta emateko.
- Enpresa publiko eta pribatuetan, sindikatuetan, enpresa-erakundeetan eta langileen artean sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko gidaliburuak, arauak eta baliabideak prestatzea, abian jartzea eta hedatzea, arlo horretako tratamenduari, prebentzioari eta esku-hartzeari buruzko informazioa emanez.
- Gidaliburuak, ikus-entzunezko materialak eta abar prestatzea, jazarpen sexista zer den eta zer ez den azaltzeko, eta haren tratamenduari eta prebentzioari buruzko informazioa emateko; eta material hori guztia enpresetan, sindikatuetan eta enpresa-erakundeetan hedatzea. Halaber, prebentzioa eta esku-hartzea bideratzeko protokolo orokor bat prestatzea, erakunde bakoitzaren berariazko egoerara egokitua izan dadin.
- Jazarpen sexistaren prebentziorako eta arazo horretan esku-hartzeko protokoloak prestatzea eta ezartzea.



Genero-indarkeriaren kasuetan arreta- eta jarduketa-protokoloak egin eta bete daitezela sustatzea

SAIL	Herrizaingo Saila
ARDURADUNA	
ERAKUNDE KUDEATZAILEA	Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.
INPLIKATUTAKO SAILAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lehendakaritza: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. • Herrizaingoa. • Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa. • Justizia eta Herri Administrazioa. • Enplegu eta Gizarte Gaiak. • Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa. • Osasun eta Kontsumoa.
ADIERAZLEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Prestatzen lagundutako protokoloen kopurua. • Ikuskatutako protokoloen kopurua. • Koordinazio poliziaerako sinatutako protokoloen kopurua. • Genero-indarkeriaren kasuetarako arreta-protokoloen estalpean dauden EAEko udalerrien kopurua. • Sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko prebentzio- eta jarduketa-protokoloak dituzten enpresa publiko eta pribatuen kopurua.

Genero-indarkeriaren arazoa egiturazko fenomeno dimentsioaniztuna da, eta arazo hori desagerrarazteko ere egiturazko esku-hartze dibertsifikatua ezinbestekoa da. Genero-indarkeriari aurre egiteko, erakundeen arteko koordinazioa giltzarrizkoa da. Ildo horretan, babes egokia eta eraginkorra eta kalitatezko arreta osoa bermatzearen, profesional asko ari dira lanean. Horren ondorioz, koordinazio-ahalegin handia egin behar da: oso ondo jakin behar da nola jokatu horrelako kasuetan, eta nola koordinatu gainerako erakundeekin, esku-hartze anizkun horren ondorioz emakumeen bigarren mailako biktimizazioa, hainbeste kezka eragiten dituen, gerta ez dadin; eta ahalik eta bizkorren jokatu behar da, arrisku-egoerak saihesteko.

Genero-indarkeria kasuetarako protokoloen estalpean dauden pertsonen kopurua gehitzea helburu hartuta lanean jarraitzea garrantzitsua da. Gaur egun, gure Autonomia Erkidegoan 32 koordinazio-hitzarmen daude, abian jarrita edo prestaketa-fasean⁶.

Genero-indarkeriaren alorrean Ertzaintzaren eta udaltzaingoen arteko koordinaziorako neurriak dagokienez, aipatzekoa da Ertzaintzaren eta udaltzaingoen artean eratutako koordinazio-batzordeetan etxeko indarkeria edo/eta genero-indarkeriari buruz aritu direla eta bi hitzarmen mota lortu dituztela, funtsean:

- Kasuaren berri aurrena duen polizia-kidegoak kasu horren arduraren hartzea adosten duten hitzarmenak. Horren osagarri, bi polizia-kidegoen artean informazioa trukatzeko dute, batez ere larrialdiei arreta emateko.

⁶ EMAKUNDE, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana*. / IX. legegaldirako jarraibideak, 161. orr.



- Hitzarmen zehatzak edo adierazi gabeak, ardura beti Ertzaintzari ematen diotenak. Horren osagarri da kasu larriei buruzko informazioa (Babes Aginduak, arrisku-maila berezia eta abar), batez ere larrialdiei arreta emateko.

Laburbilduz, informazio guztia zehazten da etxeko-indarkeriari edo/eta genero-indarkeriari aurre egiteko zerbitzuen kalitatea kudeatzeko sisteman “berehala jarduteko jarraibideak” esaten zaion urratsean. Helburua da biktimari ulertaraztea hark ematen duen informazioa oso garrantzitsua dela. Izan ere, informazio horri esker, patruilek berriz ere esku hartu behar izanez gero, hobetu ezagutuko dituzte kasuaren xehetasunak eta biktimaren nahiak (nori abisatu, haurrekin zer egin eta abar).

Orain arte, horrelako hitzarmenak egin dira polizia-etxeen eta udaltzaingoa duten udalerrien artean:

- Araban:
 - Gasteizko Udaltzaingoarekin egindako protokoloa dago, eta akordio horretan hau adostu da: etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren ondorioz egiten diren jarduteetan, jazoera horien berri aurrena duen polizia-kidegoak du titulartasuna. Horretaz gain, kasuei buruzko informazioa trukatzeko dute.
 - Laudioko eta Amurrioko Udaltzaingoekin babesei buruzko informazioa trukatzeko da, larrialdietan biktimari arreta hobea emateko. Babes Aginduen jarraipena argitze-agiria egindako polizia-kidego berak egiten du.
 - Laguardiako Udaltzaingoarekin informazioa trukatzeko akordio bat dago, biktimari ahalik eta erantzun hoberena emateko.
- Bizkaian: Bilboko, Basauriko, Santurtziko eta Portugaleteko koordinazio-batzordeetan adostu dute etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren ondorioz egiten diren jarduteetan, jazoera horien berri aurrena duen polizia-kidegoak duela titulartasuna. Beste udalerrri guztiekin informazioa trukatzeko adostu da, batez ere larrialdiei arreta emateko, eta Udaltzaingoa edo Ertzaintzak EI/GI egoerei buruz eskuratzen dituzten datu berri guztien jakitun izateko.
- Gipuzkoan: Donostiako, Irungo eta Hondarribiko Udaltzaingoekin egindako hitzarmenen bidez, lehenengo eginbideen egilea da kasuaren arduraduna. Gainerako udalerriekin informazioa trukatzeko adostu da, batez ere larrialdiei arreta emateko, eta Udaltzaingoa edo Ertzaintzak EI/GI egoerei buruz eskuratzen dituzten datu berri guztien jakitun izateko.

Sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari dagokionez, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerakoak, honela definitzen du sexu-jazarpena 7.1 artikuluan: “sexu-jazarpena sexu-izaerako edozein jokabide da, hitzezko zein fisiko, pertsonaren duintasunaren aurka egiten badu edo asmo hori badu eta, batik bat, giro beldurgarria, iraingarria edo etsaitasunezkoa sortzen badu”. Artikulu horren 2. atalean zehazten da sexuan oinarritutako jazarpena dela pertsona jakin baten sexuarekin zerikusia duen edozein jokabide, pertsona baten duintasuna kaltetzea helburu edo ondorio hori eragiten duena, edota larderiazko



inguru laidogarria edo iraingarria sortzeko asmoa duena. Gainera, bi jazarpen-mota horiek diskriminazio-eragiletzat hartzen ditu (7.3 artikulua). Horretaz gain, sexuan oinarritutako diskriminaziotzat jotzen da eskubide bat edo eskubide-itxaropen bat eskuratzeko alde aurretik egoera jakin bat onartu behar izatea, egoera horrek berarekin dakarrenean sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena (7.4 artikulua). Genero-indarkeriaren mota hori larderia-modu bat da, pertsonaren duintasuna kaltetzen duena, eta haren osasunarentzat eta segurtasunarentzat arriskua dakarrena. Gainera, ondorio suntsitzaileak izan ditzake indarkeria hori pairatzen duten emakumeen osasunean, konfiantzan, adorean eta eraginkortasunean.

Genero-indarkeria guztiak ezkutuan egoten badira ere, adierazle jakin batzuk aintzat hartzen baditugu, lan-eremuan sexu-jazarpena pairatzen duten emakumeen kopurua adierazgarria da. 2007an egindako ikerketa baten ondorioa da emakumeen %24,2k sexu-jazarpenen bat pairatzen dutela edo pairatu izan dutela, bai “jazarpen aitortua” (langile batek azken urtean pairatu dituen egoerak, langileak berak sexu-jazarpentzat hartzen dituenak) bai “jazarpen tekniko” (langile batek azken urtean pairatu dituen egoerak, langile horren irizpena edozein izanda ere sexu-jazarpen bezala definituta daudenak) aintzat hartuta.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egindako azterketan (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, ezartzearen tarteko ebaluazioa)⁷ adierazten da sexu-jazarpenari buruzko lau agindu argitaratu dituztela Ogasun, Herri Administrazio eta Herrizaingo Sailek. Lau agindu horietatik hiru sexu-jazarpenari buruzkoak dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen esparruan laneko jazarpen morala eta sexuala gertatzen den kasuetan hartu beharreko aurreikuspen-neurriak eta jarduteko prozedura arautzen ditu 2006ko urriaren 4ko Aginduak; 2007ko urriaren 9ko Agindua, laneko jazarpen moralaren eta sexu-jazarpenaren kasuen ebazpen-aldian jarduten duen Ikerketa Batzordearen antolaketarako eta funtzionamendurako araudia onartzen duena; eta 2007ko uztailaren 11ko Agindua, Segurtasun Administraziooko laguntza-zerbitzuetako eta Euskal Herriko Polizia Ikastegiko lan-kontratuko langileen esparruan laneko jazarpen morala edo sexuala gertatzen den kasuetan hartu beharreko prebentzio-neurriak eta jarduteko prozedura arautzen dituena.

Datu horiek eta beste adierazle batzuek adierazten digute genero-indarkeria gizartearen esparru guztietan agertzen dela, baita lan-eremuan ere, eta egitura guztiek batera jardun behar dutela diskriminazio horri aurre egiteko, jazarpen sexistaren prebentzio-protokoloak eta kasu horietan jarduteko protokoloak ezartzea sustatuz, arreta-baliabideak egokituz eta espezializatuz, eta jazarpen sexistari buruzko arauen eta baliabideen hedapena sustatuz, esparru publikoan nahiz pribatuan.

7

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, ezartzeari buruzko tarteko ebaluazioa 2009ko otsaila, 78. eta 79. orr.



HERRIZAINGO SAILA
Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Dirección de Atención a las Víctimas
de la Violencia de Género



IV.2. BIGARREN ARDATZA: ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA

Genero-indarkeria oso errotuta dago gizarte-egituretan, horregatik kontuan hartu behar dugu indarkeria hori egiturazkoa eta dimentsioaniztuna dela. Bigarren ardatz honetan aurreikusten dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak genero-indarkeriaren alorrean bultzatzen eta gauzatzen dituen erakunde arteko koordinazio- eta lankidetzajarduerak. Jarduera horietan, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, bere eskumenetan, bitarteko-funtzioa betetzen du eta jardunbidea lideratzen du, betiere Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin lankidetzan estuan. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko politikaren, ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen arlo guztietan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzeko ardura duen erakundea da Emakunde. Ildo horretan, aipatzekoa da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren arteko lankidetzahitzarmena onetsi zela 2010eko urriaren 5eko Gobernu Bileran. Hitzarmenaren helburua da bi erakundeen arteko lankidetzaharreman hobereana lortzea, genero-indarkeriaren biktimei kalitate handiko arreta emateko.

Genero-indarkeria desagerraraztea eta biktimei laguntzea Jaurlaritzaren helburu dira egungo legegintzaldian. Hala adierazi zuen lehendakariak 2009ko maiatzaren 5eko inbestidura-ekitaldiko hitzaldian; eta iragarri zuen, halaber, eginkizun hori gauzatzeko berriazko zuzendaritza eratuko zela Herrizaingo Sailaren mende.

Horren haritik, Herrizaingo sailburuak Eusko Legebiltzarrean jarduera-lerro nagusiak aurkeztu zituenean, berriaz aipatu zuen Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza eratuko zela, eta *Jaurlaritzak esparru horretan garatu nahi dituen eta gauzatzeko dituen abalegin guztiak koordinatzeko ardura hartuko zuela Zuzendaritza berriak*. Ildo horretan, adierazi zuen *EAEko erakundeek indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko abiaraziko dituzten neurri berri guztiak koordinatuko* dituela Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak.

Maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak IX. legegintzaldirako sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak, xedatzen du Herrizaingo Sailari dagokiola genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko politikak zuzentzea eta koordinatzea. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak, Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren bidez, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortu du eta zeregin hau eman dio: Eusko Jaurlaritzak genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko gauzatzeko dituen politikak bultzatzea eta koordinatzea, eta EAEko erakundeen arteko koordinazioa sustatzea, biktimei arreta hobe emateko.

Berdintasunerako V. Planean, ekainaren 29ko Gobernu Bileran onetsian, argi eta garbi adierazten da IX. legegintzaldian Herrizaingo Sailaren mende Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortzeak genero-indarkeriaren alorreko antolaketa-egoera berria dakarkiola Eusko Jaurlaritzari. Horren ondorioz, egungo koordinazio-egiturak errealitate berrira egokitu behar dira.



Emakumeen aurkako indarkeria errotik desagerrarazteko, behar-beharrezkoa da erakunde publiko zein pribatu guztiek, eta, azken batean, gizarte osoak, borroka egitea gizarte-sarea oro har kaltetzen duen gaitz ikaragarri hori behin betiko deuseztatzeko. Herritarrek aurre egin behar diote genero-indarkeriaren egoera horri, inolako konplexurik gabe. Era batera edo bestera genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen indizea altua da estatu osoan (biktima kontzeptuaren esanahirik zabalena aintzat hartuta); hala adierazten dute estatistikek, eta datu horrek jakinarazten digu erakunde eta gizarte-eragile guztien arteko lankidetzaz garrantzi handikoa dela. Izan ere, erakundeen arteko lankidetzarik gabe, genero-indarkeriak gora egiten jarraituko du. Horren ondorioz, guzti-guztiok –herritarrok eta erakunde publiko zein pribatuok– konpromiso hauek hartu behar ditugu arazo hori errotik desagerrarazteko: prebentzioa, biktimentzako arreta eta babesak, txiki-txikitatik berdintasunean hezteak, eta gizarte osoa sentsibilizatzea edozein motatako genero-indarkeriaren larritasunaz jabetu dadin.

Bigarren ardatzaren barruan hiru helburu estrategiko hauek bereizten dira:

- 1.- Genero-indarkeriaren biktimentzako prebentzio- eta arreta-programa integralak koordinatzea, erakunde eta administrazio publikoen artean.
- 2.- Eusko Jaurlaritzaren politika koordinatzea, genero-indarkeriari dagokionez.
- 3.- Autonomia- eta estatu-mailako erakundeekin lankidetzan jardutea.

Helburu estrategiko horietako bakoitzaren eremuan, helburu operatiboak, garatu beharreko ekintzak eta inplikaturako sailak daude, eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza arduratuko da koordinazio orokorrak eta prozesu guztia ikuskatzeaz.

IV.2.1. 2.1. Helburu Estrategikoa: Genero-indarkeriaren biktimentzako prebentzio- eta arreta-programa integralak koordinatzea erakunde eta administrazio publikoen artean



Genero-indarkeriaren biktimentzako prebentzio- eta arreta-programa integralak koordinatzea erakunde eta administrazio publikoen artean

HELBURU OPERATIBOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordean parte hartzea. • Sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketen biktimei hausnarketa-aldian laguntzeko koordinazio-protokoloaren Koordinazio eta Jarraipen Batzordea lideratzea. • Genero-indarkeriaren Euskal Behatokiaren lehendakari izatea.
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak hartutako erabakien ondorioz sortutako akordioak abian jartzea. • Sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketen biktimei hausnarketa-aldian laguntzeko koordinazio-protokoloaren Koordinazio eta Jarraipen Batzordeak hartutako erabakien ondorioz sortutako akordioak abian jartzea. • Genero-indarkeriaren Euskal Behatokian hartutako erabakien ondorioz sortutako akordioak abian jartzea.
SAIL ARDURADUNA	Herrizaingo Saila
ERAKUNDE KUDEATZAILEA	Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.
INPLIKATUTAKO SAILAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lehendakaritza: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. • Herrizaingoa. • Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa. • Justizia eta Herri Administrazioa. • Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioak. • Enplegu eta Gizarte Gaiak. • Osasun eta Kontsumoa. • Kultura – EITB erakunde publikoa.
ADIERAZLEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimentzako laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen bileren ondorioz gauzatutako ekintzen, erabakien edo akordioen kopurua. • Sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketen biktimei hausnarketa-aldian laguntzeko koordinazio-protokoloaren Koordinazio eta Jarraipen Batzordeak egindako bileren ondorioz gauzatutako ekintzen, erabakien edo akordioen kopurua. • Genero-indarkeriaren Euskal Behatokiaren bileren ondorioz gauzatutako ekintzen, erabakien edo akordioen kopurua.

Erakunde publikoen arteko koordinazio-egituren garapena sustatzea funtsezkoa da genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko programa integralak prestatzeko; izan ere, koordinazio-egitura horiek Euskal Autonomia Erkidegoan genero-indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko gauzatzen diren ekintza guztien koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa bideratzen dute.



Hori dela eta, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen eginkizunen jarraipena aurreikusten da. Hitzarmen hori 2009ko otsailaren 3an sinatu zen, 2001ean adostutako I. Hitzarmenaren ildotik. Izan ere, edukiak egoera berrietara egokitu behar ziren; batez ere lege-aldaketen ondorioz, baita protokoloak, lankidetzahitzarmenak eta beste baliabide juridiko batzuk osatzeko premiagatik ere. Hitzarmen berrian jasotzen dira, bai erakunde sinatzaileek hartutako konpromisoak, bai jarduera-protokoloak, hainbat eremutan esku hartzeko (osasan-arloan, eremu polizial eta judizialean, gizartean, hezkuntzan...). Gainera, esparru-akordio gisa planteatzen da; horrenbestez, garatu, zehaztu eta egokitu egin behar da, esku hartzeko eremu bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuta. Erakunde arteko II. Hitzarmenaren helburua da etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktimei laguntzeko ardura duten erakundeen arteko koordinazioa hobetzea Euskal Autonomia Erkidegoan, biktimei babes eta arreta osoa bermatzeko, bai osasan-arloa, bai eremu polizial eta judiziala, bai gizarte-arloa aintzat hartuta. Horrenbestez, Jarraipen Batzorde bat eratu da, erakunde sinatzaileen arteko koordinazioa hobetzeko, eta Hitzarmenean jasotako edukien gauzatze-prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko. 2010eko azaroaren 18an egin da Jarraipen Batzordearen lehenengo bilera, eta haren osaera egokitu da, IX. legegintzaldirako eraturako antolaketa-egitura berriaren arabera, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortu berria aintzat hartuta.

Azpitarratzekoa da sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketen alorreko ekintza erabat berriak abian jarriko direla. Izan ere, horrelako gizaki-salerosketak mundu guztian gertatzen dira, bai salerosketen jatorrizko herrialdeetan, bai igarotze-herrialdeetan, bai helburu-herrialdeetan. Fenomeno horren oinarrian sexu-diskriminazioa eta desberdintasun ekonomikoak daude. Biktimak –gehientsuenak emakumeak– garapen-bidean dauden herrialdeetatik datoz, batez ere, eta egoera zaurgarrian bizi dira. Hainbat motatako lanak eskainita erakartzen dituzte, prostituzioa ere bai, zehazki; baina ez dakite nolako esplotazioa, askatasun kentzea eta bortxa pairatuko duten azkenean.

Gure Autonomia Erkidegoan lan-talde bat abian jarri da, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak koordinatuta eta bultzatuta. Lantalde horrek, sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketen biktimei laguntzeko mekanismo argi eta eraginkor baten premia ikusita, protokolo baten prestaketan dihardu.

Gizaki-salerosketaren aurkako politikak eta jarduerak eta, batez ere, sexu-esplotazioa helburu duten gizaki-salerosketen aurkakoak, gero eta ugariagoak dira nazioartean; eta estatu-mailan ere baliabide berriak jarri dituzte. Horrenbestez, jarduera-mekanismoak diseinatu eta abian jarri behar dira, biktimen eskubideen babesa bermatzeko, eta biktima horiei arreta profesionala emateko, helburu hauek aintzat hartuta: biktimen premiei erantzutea, haien oneratzeko osoa bultzatzea eta esplotazio-egoera berriro ez gertatzeko laguntza ematea.

Protokoloaren helburua da sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketen biktimei laguntzeko jarduerak identifikatzea eta egituratzea EAEn, biktima izan daitezkeela jakiten den unetik hasi eta Atzerritartasun Legean kasu horietarako xedatutako

**HERRIZAINGO SAILA**

*Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

*Dirección de Atención a las Víctimas
de la Violencia de Género*

hausnarketa-aldia amaitu arte arreta emateko. Horregatik xedatzen ditu erakunde eta kolektibo bakoitzaren funtzioak, biktimei laguntzeko erakunde adituek emandako jarraibideak eta aholkuak, erakunde barruko eta erakunde arteko lankidetzak-formulak, eta informazioa jasotzeko metodologia (biktimak Protokoloan zehaztutako zirkuituan sartzen direnean, arreta ematean, irteteko egoeran eta ondorengo jarraipena egitean). Protokolo hori eztabaida-fasean dago gaur egun, eta lan-taldea Protokoloaren Koordinazio eta Jarraipen Batzordea izatea aurreikusten da.

Amaitzeko, Genero-indarkeriaren Euskal Behatokiari dagokionez, adierazi behar da sentsibilizazioari, prebentzioari eta ikerketari buruzko ardatzean emango direla hari buruzko azalpenak; hala ere, aipatuko dugu, Behatokia abian jarri ostean, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari dagokiola Behatokiaren lehendakari izatea.



IV.2.2. 2.2. Helburu Estrategikoa: Eusko Jaurlaritzak genero-indarkeriaren alorrean izango duen politika koordinatzea

Eusko Jaurlaritzak genero-indarkeriaren alorrean izango duen politika koordinatzea	
HELBURU OPERATIBOAK	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean genero-indarkeriaren biktimentzako arreta koordinatzeko mekanismoei buruzko Sail arteko Batzordearen lehendakari izatea.
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean genero-indarkeriaren biktimentzako arreta koordinatzeko mekanismoei buruzko Sail arteko Batzordeak hartutako erabakien ondorioz sortutako akordioak abian jartzea.
SAIL ARDURADUNA	Herrizaingo Saila
ERAKUNDE KUDEATZAILEA	Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.
INPLIKATUTAKO SAILAK	<ul style="list-style-type: none"> Lehendakaritza: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. Herrizaingoa. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa. Justizia eta Herri Administrazioa. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioak. Enplegu eta Gizarte Gaiak. Osasun eta Kontsumoa.
ADIERAZLEAK	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean genero-indarkeriaren biktimentzako arreta koordinatzeko mekanismoei buruzko Sail arteko Batzordearen bileren ondorioz gauzatutako ekintzen, erabakien edo akordioen kopurua.

Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean dauden koordinazio mekanismoei buruzko Dekretuak, bere 9.1 artikuluan, hauxe zehazten du: “Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioak genero-biktimentzat prestatutako laguntzak, jarduerak eta zerbitzuak gainbegiratuko ditu eta horien jarraipena egingo du. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko sail eta erakundeek, Dekretu horretan aurreikusitakoaren arabera, behar den informazioa emango dute”. Horretarako, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari atxikirik, Sailen arteko Batzordea sortu da. Haren xedea da jardun-politiken programen eta proposamenaren jarraipena egitea genero-indarkeriaren biktimen arloan. Horren lehendakaria izango da Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria eta batzordekideak izango dira, gutxienez, zuzendari kargua duten Emakundeko ordezkariak, Herrizaingo, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa, Justizia eta Herri Administrazio, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio, Enplegu eta Gizarte Gaiak eta Osasun eta Kontsumo sailez gain.



Artikulu horren 2. atalak adierazten du Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, jarraipen horren emaitzei erreparatuta eta indarkeria-mota horren kausak, ezaugarriak eta ondorioak aztertuta, proposa ditzakeela ekimenak eta gomendioak, genero-indarkeriaren prebentzioa eta desagertzea helburu duten politika publikoen eraginkortasuna hobetzeko, eta biktimei arreta hobea emateko.

IV.2.3. 2.3. Helburu estrategikoa: Erkidegoko eta Estatuko erakundeekin lankidetzan jardutea



Erkidegoko eta Estatuko erakundeekin lankidetzan jardutea.

HELBURU OPERATIBOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Genero-indarkeria errotik kentzeko eraturako hainbat organotan parte hartzea, autonomia- eta estatu mailan, esaterako Erakunde arteko II. Akordioan aurrikusitako Segimendu-batzordea, 29/2011 Dekretuen bidez sortutako Sailen arteko Batzordea, hausnarketa-aldian sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktimentzat Koordinazio eta Laguntzeko Protokoloaren Koordinazio eta Segimendu Batzordea, etab.
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Genero-indarkeriaren erasotzaileak berreztea helburu duen esku hartzeko proiektu pilotua koordinatzea. • Parte-hartutako organoetan adostutako erabakien ondorioz sortutako akordioak abian jartzea. • Beste erakunde batzuk erreferentziatzen hartuta, genero-indarkeriaren biktimentzako arretaren kalitatea eta kudeaketa-sistemak alderatzea.
SAIL ARDURADUNA	Herrizaingo Saila
ERAKUNDE KUDEATZAILEA	Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.
INPLIKATUTAKO SAILAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lehendakaritza: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. • Herrizaingoa. • Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa. • Justizia eta Herri Administrazioa. • Osasun eta Kontsumoa.
ADIERAZLEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Genero-indarkeriaren erasotzaileak berreztea helburu duen programa ezartzeko proiektu pilotuan parte hartzen duten Autonomia Erkidegoen kopurua. • Genero-indarkeria desagerrarazteko lan egitearren autonomia- eta estatu-mailan eraturako organoetan parte hartzearen ondorioz gauzatutako ekintzen, erabakien edo akordioen kopurua.

Genero-indarkeriaren aurkako borroka da, hain zuzen, emakumeek beren eskubideak gauzatzearren eta garapen askea bideratzeko ingurua sortzearren egin beharreko prozesuaren alderdi bat. Mugimendu feministak garatu duen jakinduriaren, eta analisirako eta esku-hartzeko sortu dituen baliabideen aberastasuna eta balioa funtsezkoak dira emakumeen aurkako indarkeriaren jatorria ulertzeko eta indarkeria hori desagerrarazteko aukera izateko. Halaber, aintzat hartzekoa da administrazio publikoek, herri-arduran oinarrituta, gauzatu duten jarduera politikoaren garrantzi historikoa eta izaera berritzaile eta eredu-garria.

Esperientzia horiek guztiak gogoan izatea funtsezkoa da, diseinatzen diren politika publikoak bitarteko aktiboak eta eraginkorrak izan daitezen, emakumeen eskubideak bermatzeko, eta gure gizartean emakume izateagatik pairatzen den indarkeria desagerraraztea bideratuko duten baliabide egokiak abian jartzeko. Horregatik guztiagatik, behar-beharrezkoa da gizartearen gaitz hori desagerrarazteko lanean diharduten Euskal Autonomia Erkidegoko edo estatu-mailako erakunde



publiko zein pribatuekin lankidetzan jardutea, eta helburu hori lortzeko ekimenetan parte hartzea.

IV.3. HIRUGARREN ARDATZA: GENERO-INDARKERIAREN ALORREKO SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA

Hirugarren ardatzaren helburua da genero-indarkeriaren prebentzioa; horretarako, oso lagungarriak izan daitezke sentsibilizazio-kanpainak eta genero-



indarkeriari buruzko ikerketak. Prebentzio- eta sentsibilizazio-neurriak gizarte osoarentzat dira eta nabarmendu beharreko eremuak dira, batetik hezkuntza eta, bestetik, informazioa hedatzen duten komunikabideen eremua. Izan ere, bi sektore horiek euskarritzat hartuta, arrakastarako aukera eta berme gehiagorekin ekin diezaiokegu duintasunean, berdintasunean eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako irudizko kolektiboa, gizarte-jokabidea eta generoen arteko dialektika eraikitzeko prozesuari.

Ardatz honetan jasotako neurrien xedea da diskriminazioa eragiten duten gizarte-jarrerak prebenitzea eta saihestea; izan ere, emakumeen aurkako indarkeria sustatzen duten jarrera horiek oraindik ere irauten dute. Hori dela eta, errealitatearen ezagutza egokia izatea zein garrantzitsua den nabarmendu nahi dugu. Horretarako, gure Autonomia Erkidegoko genero-indarkeriari buruzko datu ziur eta fidagarriak behar-beharrezkoak ditugu, kausak eta ondorioak aztertzea ezinbestekoa da, egiten diren ikerketak lehen urrats izan daitezzen; hartara, genero-indarkeriak eragindako arazoari erantzuteko formula egokiak aurkituko ditugu.

Botere publikoen eta erakundeen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrak kontzientziatzea, eta, horretarako, emakumeen kontrako indarkeria-mota horren berri ematea, ezagutu eta identifikatu ahal izateko. Halaber, funtsezkoa da genero indarkeriak norbanakoengan eta gizartean eragiten dituen ondorioen larritasuna agerian jartzea, eta gizarteak genero-indarkeriari ezezko biribila eta aktiboa eman diezaion sustatzea.

Sentsibilizazioa eta prebentzioa oinarritzko bi elementu dira emakumeen aurkako indarkeria murrizteko, eta, azken finean, arazo hori desagerrarazteko. Indarkeria horren aurkako borrokan, sentsibilizazioa eta prebentzioa ez badira lantzen, ondorio kaltegarrietan eragitea lortuko dugu, baina ez gara iritsiko haien sorburura. Horrenbestez, prebentzioa eta sentsibilizazioa behar-beharrezkoak dira, emakumeen kontrako indarkeriarik gerta ez dadin.

Ildo horretan, erakundeen esku-hartzea arazoaren sorburura bideratu behar da, emakumeen aurkako indarkeria-mota guzti-guztiak agerian jarri behar da, gizarteak gero eta argiago ikusi behar du horrelako jokabideak guztion arazo direla. Horrenbestez, indarkeriazko portaerak sustatzea eta defendatzea dakarten balio, jarrera eta gizarte-estereotipo guztiak deuseztatu egin behar dira apurka-apurka.

Bestalde, berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko balioak sustatu behar dira, genero-indarkeriaren adierazpide guztien erabateko gaitzespena dakartenak. Jakin badakigu genero-indarkeriaren aurkako sentsibilizazioa areagotzea oso lagungarria dela gizarteak jokabide hori gaitzetsu dezan. Gizarteak zenbat eta informazio gehiago izan, orduan eta gehiago gaitzesten du indarkeria; hortaz, komunikabideen zeregina funtsezkoa da genero-indarkeriaren gaitzespena gizartean errotu dadin. Gainera, genero-indarkeriaren prebentzioan, berdintasunerako hezkuntza-prozesuak bultzatzea eta profesionalentzako berriazko prestakuntza sustatzea giltzarrizko faktoreak dira.



Gizartea oro har sentsibilizatzeko premiarekin batera, arreta berezia merezi duten giltzarrizko kolektiboak eta gizarte-eragileak kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko neurriak hartzen dira; esate baterako, hezkuntza-alarrean gauzatzen diren ekintzak. Hezkuntzak berebiziko garrantzia du, balioak transmititzen ditu eta gazteei prestakuntza ematen die hainbat gaitan (berdintasuna, gatazkak bakean konpontzea, sexuen arteko berdintasunaren aurkako estereotipoak deuseztatzea eta abar). Horrenbestez, indarkeria baztertzen duten portaera-ereduak nagusituko dira etorkizunean. Azken finean, hezkuntzaren bidez, berdintasunean eta justizian gehiago errotutako gizarte bat sortzeko premiaz jabetuko dira gazteak.

Halaber, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta ematen diharduten alor guztietako profesionali genero-indarkeriaren alorreko prestakuntza emateko neurri batzuk prestatu dira, biktimei benetako laguntza osoa ematea helburu hartuta. Hainbat alorretan (gizartean, osasunean, eremu polizial eta judizialean...) diharduten eragileei berariazko prestakuntza ematen zaie; izan ere emakumeengandik gertuen dauden profesionalak garrantzi handiko zeregina dute genero-indarkeriaren prebentzioan eta arrisku-egoerak detektatzeko prozeduretan. Hortaz, behar-beharrezko baliabide dira, genero-indarkeriaren garapena eta hedapena galarazteko; eta, gainera, tratamendu eta esku-hartze eraginkorragoa bideratzen dute. Halaber, prestakuntza espezializatua baliagarria da emakumeek eta haien seme-alabek pairatzen duten biktimizazio bikoitzaren fenomenoari saihesteko.

Hirugarren ardatzak bi helburu estrategiko ditu:

- 1.- Herritarrak genero indarkeriaz sentsibilizatzea, lehen mailako gizarte-arazoa den aldetik.
- 2.- Indarkeriazko jokaeren prebentzioa hobetzea.

Aurreko bi ardatzetan bezala, honako taula hauetan zehazten dira genero-indarkeriaren alorreko sentsibilizazioan, prebentzioan eta ikerketan oinarritutako ardatz honen bi helburu estrategikoei dagozkien helburu operatiboak, ekintzak, sail arduraduna, erakunde kudeatzailea, inplikaturako sailak eta adierazleak.

IV.3.1. 3.1. *Helburu estrategikoa: Herritarrak genero indarkeriaz sentsibilizatzea, lehen mailako gizarte-arazoa den aldetik*

Herritarrak genero indarkeriaz sentsibilizatzea, lehen mailako gizarte-arazoa den aldetik

HELBURU OPERATIBOAK

- Genero-indarkeriaren aurrean “zero tolerantzia” sustatzea.



Herritarrak genero indarkeriaz sentsibilizatzea, lehen mailako gizarte-arazoa den aldetik

- Erakunde guztien inplikazioa bultzatzea genero-indarkeria gaitzesteko eta haren aurka borrokatzeko.
- Emakumeen aurkako indarkeria iraunarazten duten irudiak eta edukiak komunikabideetatik desagerraraztea.
- Sentsibilizazio- eta prebentzio-jardueretan herritarrek gehiago parte hartzea, batez ere gizonek.
- Gizartean eta, batez ere, gazteen artean, genero-indarkeriaren mota desberdinei buruzko pertzepzioa handiagotzea, bereziki indarkeria sotilei buruzko pertzepzioa (mikroindarkeriak).

EKINTZAK

- Beste erakunde batzuek genero-indarkeria gaitzesteko deitutako ekintzetan eta ekimenetan parte hartzea.
- Genero-indarkeriazko ekintzak publikoki gaitzestea.
- Genero-indarkeriaren zergatiari eta adierazpideei buruz herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea, batez ere gizartearen, kulturaren eta komunikabideen eremuetan, irudi eta eduki sexistak identifikatzea bideratzeko eta horrelako adierazpideak salatzea bultzatzeko.
- Publizitatea onartzeko araututako irizpideak errespetatzea, eta emakumeentzako iraingarriak edo/eta diskriminatzaileak diren irudirik edo mezurik ez erabiltzea xedatzen duten arauak betetzea; bereziki emakumeen aurkako indarkeria zuritzen, hutsaltzen edo sustatzen badute.
- Genero-indarkeriaren larritasuna, kausak eta ondorioak ezagutarazteko jardunaldiak egitea.
- Emakumeentzako tailerrak edo ikastaroak egitea, indarkeriazko egoerak identifikatzeko, gaitzesteko eta salatzeko gai izan daitezkeen; eta gizonentzako tailerrak, emakumeekin dituzten harremanei erreparatzeko, eta berdintasunean oinarrituta ez dauden ideiak eta jokabideak aldatzeko.
- Genero-indarkeriari buruzko datu estatistikoak etengabe antolatzea eta hedatzea, arazoa agerian jartzeko.

SAIL ARDURADUNA	Herrizaingo Saila
ERAKUNDE KUDEATZAILEA	Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.
INPLIKATUTAKO SAILAK	Jaurlearitzako sail guztiak.
ADIERAZLEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Gauzatutako sentsibilizazio-kanpainen kopurua. • Sentsibilizazio-kanpainetan parte hartu duten erakundeen kopurua. • Genero-indarkeriaren biktimentzako laguntzari buruzko informazioa ematen duten liburuxken/kartelen kopurua. • Genero-indarkeriari buruzko sentsibilizaziorako antolatutako jardunaldien kopurua. • Aurkeztutako txostenen kopurua (datu eguneratuen berri ematen duten txostenak soilik aintzat hartuta).



Herritarrak genero indarkeriaz sentsibilizatzea, lehen mailako gizarte-arazoa den aldetik

- *Gizonduz* ekimenean parte hartzen duten gizonen kopurua (ikastaroetan parte hartzea, gutuna sinatzea edo sare sozialean parte hartzea).
- Emakumeen aurkako indarkeria agerian jartzeko eta prebenitzeko programetan parte hartzen duten pertsonen kopurua.
- Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta agerian jartzeko EAEn gauzatutako programen eta jardueren kopurua.
- Genero-indarkeriaren gizarte-arazo larriaren aurrean herritarrak sentsibilizatzearren komunikabideetan egindako agerraldien kopurua..

Genero-indarkeriaren aurkako borrokan, behar-beharrezkoa da herritarrengan gizarte-arazo handi horri buruzko sentsibilizazioa eragitea. Izan ere, gaitz horren aurrean, “zero tolerantzia” bultzatu behar da, genero-indarkeria deuseztatzeko premiari buruzko gizarte-kontzientzia handiagotzeko, eta biktimei laguntza eta babesa emateko.

Horretarako, funtsezkoa da, besteak beste, sentsibilizazio-kanpainak egitea, herritarrak kontzientziatzeko emakumeek –emakume izateagatik– egunero pairatzen dituzten hainbat indarkeria-motaz. Horren haritik, funtsezkoa da genero-indarkeriaren kontzepzio tradizionalaren aurkako borrokari eustea (bikoteak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria) eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eremu horretan jardungo du; baina, aldi berean, gizartearen hain agerian ez dauden indarkeria-motei ere erreparatu behar zaie: sexu-erasoei, sexu-esplotaziorako emakume- eta neskato-salerosketei, eta familia barruko indarkeriari, besteak beste.

Jakin badakigu oso zaila dela arazo konplexu horren alderdi guztiei heltzea; horregatik, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak orain arte egindako hiru kanpainen muina izan da milaka emakumek egunero pairatzen duten indarkeria (ustez maitasuna eta errespetua sentitzen dutenek eragindako indarkeria, alegia). Hala ere, oso askotariko ikuspegietatik bota daiteke mezu hori: gizarte-arazo larria bada ere, genero-indarkeriaren ondorioak maila askotan ageri dira; eta, horrenbestez, oso berriazko neurriak hartu behar dira genero-indarkeriaren kasu eta mota bakoitzari aurre egiteko.

Horiek horrela, BERDINSAREAREN 2009ko eta 2010eko kanpainak (Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak EUDELEkin eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin batera egindako kanpainak, alegia) aintzat hartu du indarkeria-mota hori gazteen artean prebenitzea. Gai hori oinarri-oinarrizkoa da, arazoa konpontzeko ezinbestekoa baita prebentzioa lantzea, informazioaren bitartez, eta etorkizuneko belaunaldiak sexistak ez diren balioetan heziz.



Hortaz, gizartearen gaitz horri aurre egiteko, zenbait mezu nahastu behar dira, haietako bakar bat ere ahaztu gabe. Izan ere, funtsezkoa da prebentzio-neurriak ezartzea, bereziki gizonezko gazteei zuzenduta (alderdi horri heldu zitzaion Berdinsarearen 2009ko eta 2010eko kanpainan), eta funtsezkoa da, halaber, indarkeria-mota hori eragiten duten gizonen aurkako zigor-neurriak ezartzea. Gai hori jorratu zen Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren 2009ko kanpainan, “Emakumea gaizki tratatzen duena erruduna da” goiburu hartuta.

Aintzat hartuta bai 2009ko kanpaina bai mezu desberdinak elkartzeko premia hori, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren 2010eko kanpainak erreparatu die bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindako indarkeria pairatzen duten biktimei; edo zehatzago esateko, indarkeria atzean uztea lortu duten emakumei. “Tratu txarretatik... irten daitekeelako” goiburu hartuta, kanpainaren ardatza da bide zailari ekin dion emakumea, baina helburu argikoa: indarkeriazko harremana uztea eta baliabide pertsonal eta gizarte-harreman guztiak lortzea, askatasunean eta norberaren garapenean oinarritutako autonomiara eta independentziara behin betiko jaurtiko dituen. Errudun-ustea eta beldurra gainditu dituzten emakumeak dira, indarkeriarik gabeko bizimoduari bidea emateko, fikziozko pertsonaiak diren emakumeak; baliagarriak, ordea, kanpainaren mezua helarazteko: tratu txarretatik irten daiteke eta erakundeetan eskura ditugun bitarteko guztiak jartzen jarraituko dugu, emakumei bide horretan laguntzeko.

Gainera, 2010ean, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Immigrazio Zuzendaritzarekin batera, “Seinaleak sumatuz gero aurre egin!” kanpaina burutu du, genero-indarkeria paira dezaketen emakume etorkinei berariaz zuzendua.

Zalantzarik gabe, herritarrak sentsibilizatzeko prozesu horretan, sentsibilizazio-kanpainez gain, bestelako jarduerak ere garrantzi handikoak dira, esate baterako: erakundeek eta instituzioek genero-indarkeria gaitzesteko sustatutako ekintza eta ekimen guztiak, genero-indarkeriazko ekintzak publikoki gaitzestea, publizitatea onartzeko araututako irizpideak errespetatzea, eta emakumeentzako iraingarriak edo/eta diskriminatzaileak diren irudirik edo mezurik ez erabiltzea.

Bestalde, ezinbestekoa da komunikabideetan agertzea, genero-indarkeriari buruzko datu estatistikoak hedatzeko; hartara, arazoa begien bistan jartzea bideratuko da. Gainera, jardunaldiak egitea ere funtsezkoa da, hainbat alorreko profesionalen ponentziak, hitzaldiak eta esku-hartzeak aurkezteko eta arazoaren benetako hedadura eta larritasuna aditzera emateko. Testuinguru horretan jarri behar dira, hain zuzen, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak oraindik orain egin dituen jardunaldiak: “Genero-indarkeriaren hain bistakoak ez diren moduak”. Jardunaldien helburua izan da genero-indarkeriaren azterketa osoa egitea, haren adierazpide guztiak begien bistan jartzeko ahaleginetan, gizarte-arazo larri hori desagerrarazteko prozesuan aurrera egitearren analisi-baliabideak eta esku hartzeko jarraibideak emateko. Halaber, 2010eko azaroaren 5ean, “Genero-indarkeriaren erasotzaileak berreztea helburu duten esku hartzeko programak” nazioarteko



jardunaldia egin zen Bilboko Euskalduna Jauregian. Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak antolatutako jardunaldian, arlo horren ardura duten estatuko eta nazioarteko agintariek parte hartu zuten.

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, 2011n (urrian), genero-indarkeriari aurre egiteko jardunaldiak antolatuko ditu; horietan, bereziki aztertuko da komunikabideek genero-indarkeria tratatzean duten zeregin inportantea. Euskal Autonomia Erkidegoan, genero-indarkeriaren eremuan lan egiten duten gizarte-eragile desberdinen inplikazioa lortzea izango da jardunaldien helburu nagusia, hain zuzen gai hauetan adituak diren pertsonak: familia, hezkuntza, kultura, komunikabideak eta teknologia berriak, etab.; horrela konfiguratuko da genero-indarkeriari diziplina aniztetik heltzea. Egiazta daitekeen bezala, jardunaldi horietan bai hezkuntzak, bai komunikabideek parte hartze eta arreta berezia izango dute eta sektore horietan profesionalen lankidetzak egongo da, horien lana funtsezkoa baita genero-indarkeriari aurre egiteko: gure gazteak heztetik eta genero-indarkeria tratatzean morborik gabeko informazio zorrotzera ematek edo adingabeak eta gazteak bezalako talde inportanteetan teknologia berrien eraginetik hasita.

Bestalde, 2011n, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak kontratuan hartu du bere web orriari (www.euskadi.net/violenciadegenero) esteka egiten dion weba konfiguratzea eta horretatik aholkularitza espezifikoa eskaini nahi die gazteenei. Hurrengo hilabeteetan abian jarriko da web orri hori eta horren edukiak egokituko dira gazteek erabiltzen duten hiztegiari; horrela sortuko da toki erakargarria hartzaileentzat, erosotasunez eta konfiantzaz hurbil daitezke bertara eta, genero-indarkeriari buruzko informazioa hartzeaz gain, laguntza edo aholkularitza ere eska dezakete, kasuak hala behartzen badu. Aipatu webaren azken helburua da genero-indarkeria osoari aurre egitea; horretarako, web horrek adituen informazioa eta aholkularitza eskainiko du, baita kontsultak egiteko aukera ere, eta hori guztia modu anonimoan. Azkenik, ekimen horren bidez, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak bilatzen du gure gazteen kontzientziatzea eta sentsibilizazioa, mikro-indarkeria kasuak antzemateko gai izateko asmoz.

Bukatzeko, aipatu behar da Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak erabaki duela 2011n egitea honi buruzko ikerketa: Euskal Autonomia Erkidegoko idatzizko prentsan genero-indarkeriak duen tratamendua; horrek erakusten du zuzendaritza horrek genero-indarkeriari aurre egiteari ematen dion garrantzia eta balioa, eta arazo larri horri buruz herritarren sentsibilizazioa, gizarte osoari eragiten baitio.

IV.3.2.: 3.2. Helburu estrategikoa: Indarkeriazko jokaeren prebentzioa hobetzea

Indarkeriazko jokaeren prebentzioa hobetzea

HELBURU

- Informazioa biltzeko eta homogeneizatzeko sistemak hobetzea.



Indarkeriazko jokaeren prebentzioa hobetzea

OPERATIBOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Azterlanak eta ikerketak egitea. • Genero-indarkeriaren Euskal Behatokia eratzea. • Emakumeen aurkako indarkeria-kasuei buruzko informazio estatistikoa biltzeko prozesua homogeneizatzeko eta sistematizatzeko jarduerak abian jartzea. • Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eta babesa ematen diharduten profesionalentzako berariazko prestakuntza sustatzea. • Emakumeen aurka eragindako indarkeriari buruzko azterlanak egitea: kausak, ondorioak, bizipenak, eragileak, premiak eta eskaerak, diskriminazio anitza indarkeria-egoeretan, etab. • Jarduerak abian jarri aurretik ebaluazioak, proiektu pilotuak edo diagnosiak egitea. • Abian dauden esku hartzeko programen eraginkortasuna, indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak aztertzeko lan-taldeak sortzea.
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Indarkeria-egoerei arreta emateko eta egoera horiek desagerrarazteko jarritako baliabideen kudeaketari, eraginkortasunari eta efizientziari buruzko ebaluazioak egitea eta ezagutaraztea, diskriminazio anitza aintzat hartuta. • Komunikaziorako eta lankidetzarako espazioak eta baliabideak jartzea, hiriak diseinatzeaz, planifikatzeaz eta hobetzeaz arduratzen diren profesionalen eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza eta babesa emateko prozesuan inplikaturako profesionalen artean. • Emakumeen segurtasunarekin zerikusia duten irizpideak prestatzea, irizpide horiek kontuan hartzeko, esate baterako HAPOetan edota Gizarte Hirigintzako txosten eta azterketetan, 1985eko Aginduak araututakoari jarraiki. • EAE osoko “puntu beltzak”, “beldur-puntuak”, “hiri seguruak” eta abar adierazten dituzten mapen erabilpenari, eraginkortasunari eta hedapenari buruzko azterketa egitea eta haien indarguneak eta ahuleziak identifikatzea.
SAIL ARDURADUNA	Herrizaingo Saila
ERAKUNDE KUDEATZAILEA	Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.
INPLIKATUTAKO SAILAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lehendakaritza: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. • Herrizaingoa. • Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa. • Justizia eta Herri Administrazioa. • Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioak. • Osasun eta Kontsumoa.
ADIERAZLEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Teknologia berrien erabilera genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko zerbitzuetan. • Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eta babesa ematen diharduten eta berariazko prestakuntza jaso duten profesionalen kopurua.



Indarkeriazko jokaeren prebentzioa hobetzea

- Genero-indarkeriari buruzko azterlanen eta ikerketen kopurua.
- Ebaluazioen, programa pilotuen eta diagnostikoen kopurua.
- Lan-taldeen kopurua.
- Egungo baliabideen kudeaketari, eraginkortasunari eta efizientziari buruzko ebaluazioen kopurua.
- Eusko Jaurlaritzan genero-indarkeriaren kasuetan baliatzeko prebentzio-protokoloei eta jarduteko prozedurei buruz egindako azterlanen kopurua.
- Hiri-eremuen segurtasunari buruzko diagnostia egin eta hobetzeko alorrak proposatzen dituzten txostenen kopurua.
- Hiri-diseinuaren alorrean diharduten profesionalekin izandako bileren kopurua eta tipologia.
- Gune seguruen mapei buruz egindako azterlanen kopurua eta azterlan horietan parte hartu duten pertsonen kopurua.

Indarkeria-mota horren prebentziorako, haren kausei eta ondorioei buruzko ezagutza handiagotu behar da; jakina, baita biktimen berriazko premia bereziak buruzkoa ere. Horretarako, genero-indarkeriazko egoerei buruzko azterlanak eta ikerketak egin behar dira, eta bereziki aintzat hartzekoak dira nekazaritza-eremuetako emakumeak eta arazo bereziak dituzten emakumeak (gutxitasunen bat duten emakumeak, emakume adinduak, emakume etorkinak, drogen mendean dauden emakumeak, gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden emakumeak, buruko patologia dituzten emakumeak...). Betiere kolektibo horientzat guztientzat politika egokiak eratzea helburu hartuta.

Gainera, ikerketen eta azterlanen arreta-gunea zabaldu eta berriazko azterlanak egin behar dira hain bistakoak ez diren genero-indarkeriaren motei buruz. Hartara, genero-indarkeriaren hedadura eta garrantzia hobeto ikustea lortuko da. Esate baterako, ez dago sexu-indarkeriaren definizioari buruzko adostasunik; gainera, arazo horren ezaugarriak buruzko informazioak eta mundu guztian duen hedapenari buruzko datuak oso urriak direnez, ez du leku handirik izaten arduradun politikoen agendan. Horregatik, askoz ere ikerketa gehiago egin behar dira indarkeria-mota horren alderdi gehientsuenei buruz: sexu-indarkeriaren eragina eta prebalentzia hainbat eremutan, arrisku-faktoreak, ondorioak osasunean eta gizartean, sexu-indarkeriaren mota desberdinen gizarte-testuinguruak (sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketak ere kontuan hartuta) eta abar.

Halaber, Berdintasunerako V. Planak adierazten duen bezala, garrantzitsua da abian jarritako jardueren emaitzak ezagutzea, monitorizazio- eta ebaluazio-prozesuez baliatuta. Horretarako, oinarriko baldintza da informazioa biltzeko sistema homogeen bat izatea, datu eguneratuak lortzeko, bai arazoaren eraginari buruz, bai arreta emateko jarritako baliabide eta zerbitzuei buruz. Horiek horrela, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak⁸ arreta-prozesuetan parte hartzen duten

⁸“Emakumeen kontrako etxeko tratu txarren arloko Gizarte Zerbitzuen ebaluazioa”, 2006; “Polizia baliabideen ebaluazioa, emakumeen aurkako etxeko tratu txarrei dagokienez”, 2007; “Baliabide judizialei eta abokatu-laguntzari buruzko ebaluazioa, emakumeen aurkako



profesionalen hainbat ebaluazio egin ditu eta ebaluazio horietan ateratako ondorioa hau da: emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuen kalitatea hobetu behar da eta datu horien jario hobe bideratu behar da erakundeen artean.

Ildo horretan, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean genero-indarkeriari buruzko datuak biltzeko eta ustiatzeko sistema bateratzea helburu hartuta, kudeaketa-baliabide bat eratzekeo prozesuan dihardu. Baliabide berri horrek bideratuko du, hain zuzen, genero-indarkeriak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen ezaugarriak, eraginari eta prebalentziari buruzko aldi behingo azterlanak egitea. Kudeaketa-baliabide horren bitartez, genero-indarkeriaren biktimekin zerikusia duten eta Eusko Jaurlaritzaren eskumenean dauden gai, zerbitzu eta baliabide guztiei buruzko informazioa jasoko da (laguntza ekonomikoak, etxebizitza-alorreko laguntzak, enplegu-alorreko laguntzak, 24 orduko telefono bidezko arreta, Biktimari Laguntzeko Zerbitzua...). Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak kudeatuko du baliabide hori.

Helburu estrategiko hori lortzeko, funtsezkoa da arazo larri horri buruzko informazioa homogeneizatzeko zenbait jarduera abian jartzea. Horretaz gain, azterlanak, ebaluazioak, programa pilotuak, diagnosiak eta lan-taldeak egin behar dira, arazoa hobeto ezagutzeko ez ezik, arazo hori prebenitzea eta konpontzea bideratzeko.

Testuinguru horretan, Genero-indarkeriaren Euskal Behatokia abian jartzeak berebiziko garrantzia du. Gogora ekarri behar dugu, lehenengo berdintasun-egiturak sortu zirenetik, aurrerabideak egin direla gizartean eta erakundeetan, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egitearren gauzatutako esku-hartzei erreparatuta. Agintari publikoen printzipio gidariak izan dira esku-hartze koordinatua gauzatzea eta jarduera-prozedura homogeneoak ezartzea, biktimei babes osoa bermatzeko. Esparru horretan, ikerketarekin eta lankidetzarekin lotura zuzena duen eremuan, Berdintasunerako V. Planak, 2010eko ekainaren 29ko Gobernu Bileran onetsi zenak eta ondorengo lau urteetan aplikatuko denak, xedatzen du emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko alorra dela planaren jarduera-ardatzetako bat. Zehazki, 6.2 helburu estrategikoak (“Portaera bortitzen prebentzioa hobetzea”) hau xedatzen du 6.2.1. atalean: Informazioa biltzeko eta homogeneizatzeko sistemak hobetzea, EAEn gertatutako genero-indarkeria kasuei buruzko datu eguneratuak izateko eta gai horretan parte-hartze publikoa hobetzeko. Helburu hori garatzeko beste ekintza batzuen artean xedatzen da Genero-indarkeriaren Behatokia abian jartzea Euskal Autonomia Erkidegoan.

Gainera, aipatzekoa da Eusko Legebiltzarraren 2008ko martxoaren 14ko osoko bilkuran hartutako erabakian administrazio publikoei eskatzen zaiela zenbait eremutan esku hartzea, besteak beste, genero-indarkeriaren fenomenoaren kausei

etxeko tratu txarren alorrean”, 2007; eta “Emakumeen aurkako etxeko tratu txarren kasuan laguntzeko osasun-baliabideen irismenaren eta eraginkortasunaren ebaluazioa”, 2008.



buruzko ikerketan eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei erantzuteko formulak bilatzean.

Gipuzkoako Batzar Nagusiak, berriz, 25/2010 ebazpenean, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan hausnarketa-prozesu kolektiboak martxan jartzeari buruzkoan, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, besteak beste, genero-indarkeriaren kausei eta ondorioei buruzko analisi-prozesu sakonari ekin diezaiola, Foru Aldundiekin koordinatuta.

Hortaz, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu ditu eskaera horiek; eta, genero-indarkeriaren alorreko ikerketa, aholkularitza, ebaluazioa, erakunde arteko lankidetzak, txostenak, azterlanak eta proposamenak egitea sustatzeko eskumena duela eta premia dagoela ikusita, Genero-indarkeriaren Euskal Behatokia sortzea erabaki du, aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegoan izango duena. Organo kolegiatua izango da, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari atxikia, eta hari buruzko dekretua izapidetze-fasean dago.

Amaitzeko, azpimarratu behar da biktimei informazioa, arreta eta babesa ematen diharduten profesionalentzako berriazko prestakuntza sustatzeak garrantzi handia duela. Horren haritik, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren helburuen artean dago genero-indarkeriaren arazoan inplikaturako sektore profesionalen berriazko prestakuntza bultzatzea.

Esate baterako, Ertzaintzako langileentzako, udaltzaintzako eta gizarte-langileentzako prestakuntza-jarduerak. Halaber, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak aktiboki parte hartzen du Deustuko Unibertsitateak antolatutako Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Master Ofizialean. Master hori, hain zuzen, diziplinarteko ikuspegia aintzat hartuta, genero-indarkeriaren alorreko prestakuntza nahi duten pertsonentzat da.

**V. ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANAK, ETA
GIZARTE- ETA EKONOMIA-ERAGILEEN ETA
HERRITARREN PARTE-HARTZEA**

Genero-indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren I. Jardute Plana jendurrean jarri da, indarrean dagoen araudiaren arabera, eta Berdintasunerako V. Planean xedatutakoari jarraiki. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko erakunde arteko koordinazioaren eta bi erakundeek genero-indarkeriaren aurka gauzatzen duten borrokaren adierazpide da. Are gehiago: bi planen azken idazketak jendurrean jarri dira, herritarrek parte hartzeko, Eusko Jaurlaritzako sailek haien berri izateko eta behin betiko idazketarako egoki iritzitako ekarpenak egiteko.

Ildo horretan, erakundeen eta botere publikoen jardueraren helburua herritarrak direnez, eta haien egoera hobetzea nahi dutela aintzat hartuta, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren webgunean eta Irekia ekimenean (Eusko Jaurlaritzaren ekimena, herritarren parte hartzea sustatzeko eta Administrazio Publikoarekiko harremanak hobetzeko) postontzi bat jarri da, herritar guztiek parte har dezaten, eta egoki iritzitako ekarpenak bidaltzea eskatzen diegu.

Halaber, gutun bat helarazi zaie genero-indarkeria desagerrarazteko lanean diharduten instituzio, erakunde eta elkarteei, Genero-indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren Jarduteko I. Plan honen prestaketa-lanetan parte hartzeko gonbita eginez. Horretarako, jarduera-ardatz estrategikoen eskema eta ardatz horiek garatzeko gauzatuko diren ekintzen azalpena bidali zaie, xehetasunez azter dezaten, eta hari buruzko oharrak edo iruzkinak bidal ditzaten.

Amaitzeko, aipatzekoa da Plan honetan zehaztutako berariazko ekintza batzuek herri-partaidetzako prozesu sakon bat izango dutela, benetan adostutako ekintzak eta beharrezkotzat jotakoak izan daitezten. Horren adibide da Genero-indarkeriaren biktimei laguntza osoa emateko Legea. Prestaketa-fasean dago lege hori, eta haren edukietan aintzat hartuko dira beste erakunde eta pertsona batzuen ikuspegiak. Horretarako, lege horretan xedatu nahi diren edukiak jakinaraziko zaizkie, era egokian, haien irizpenak eman ditzaten.



VI. KONTUAN HARTUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak prestatu du Genero-indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren 2011-2013ko Jarduteko Plana; hura gauzatzeko behar dira giza baliabideak, baliabide materialak eta finantza-baliabideak.

Jaurlaritzako sail guztiek eta EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeak generoaren alorrean aurreikusitako jarduera guztiak jasota daude planean eta sail edo erakunde horiek erantsi dituzte dagozkien memoria ekonomikoak.

Plan hau betearaziko da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta inplikaturako sail bakoitzaren aurrekontu-partidaren kontura, hala gauzatzea baldin badagokie.

Planaren betearazte aldia garatzeko aurreikusitako aurrekontu-zenbatekoa 19. 429.742,76 eurokoa da eta honela banatuko da urtesarrietan:

2011	6.476.580,92 euro
2012	6.476.580,92 euro
2013	6.476.580,92 euro

Plana 2011n betearazteko, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari dagozkio 2.275.587 euro, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 29ko 5/2005 Legeak izendatutako aurrekontua; eta Plana betearazteko osorik zuzenduko da. Era berean, 2012/2013 ekitaldietarako zuzendaritzaren aurrekontua ere osorik erabiliko da, izan ditzakeen aldaketak salbu.

Aurrekontuaren gainerakoa honela banatuko da:

Emakundek betearazteko aldirako 1.547.500,00 euro erabiliko ditu (2011-2013ko I. seihilekoa).

Osasun eta Kontsumo Sailak eta Osakidetzak 160.000 euro erabiliko dituzte 2011/2013 betearazteko aldirako, nahiz eta estimatu urte bakoitzean kontzeptu bakoitzaren aurrekontua alda daitekeela.

Justizia Sailaren 2011ko aurrekontua 2.195.996 eurokoa da, hain zuzen ere, genero-indarkeriaren alorrean garatzen dituen ekintzetarako (2); zehazki Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren, etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren pertsonen berehalako laguntza juridikoa emateko hitzarmena 2007an sinatu zen eta indarrean jarraitzen du. Beraz, aurrekontuak onartzearen menpe dagoen



partida horrek gutxitzen du Planaren iraupenerako estimatutako kantitatea, gutxi gora behera 6.587.988 eurotan.

Hala ere, azpimarratzekoa da Plan hau hasi zela 2010eko lehenengo sei hilabetean eta ekitaldi osoan zehar Planean sartutako helburuak lortzeko ekintzak burutu direla eta horietako batzuk 2011n ere gauzatzen jarraitzen dute; eta, hortaz, 2010/2011 urteen aurrekontuen kontura finantzatu dira. Eranskinean zerrendatzen dira aurreikusitako ekintzak eta hasieran eman zitzaion balioespen ekonomiko orientatzailea, 2010eko datuak kontuan harturik egin zena.

Plan hiru ardatzetan egituratzen da eta horietako bakoitzean helburu estrategiko batzuk bereizten dira; horietan daude kokatuta helburu operatiboak, garatu beharreko ekintzak eta inplikaturako sailak; ardatz horietako bakoitzerako izanik urte sarien aurrekontu hau:

Lehenengo ardatza: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeari dagokionez, 4 helburu estrategiko ezarri dira, dagozkion helburu operatibo eta ekintzak dituen. Lehenengo ardatza garatzeko, aurreikusitako finantzazioaren zenbateko osoa 4.005.765,52 eurokoa da.

Bigarren ardatza: Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzari dagokionez, 3 helburu estrategiko ezarri dira eta dagozkion helburu operatibo eta ekintzak. Bigarren ardatza garatzeko, aurreikusitako finantzazioaren zenbateko osoa 205.937 eurokoa da.

Hirugarren ardatza: Genero-indarkeriaren alorreko sentsibilizazio, prebentzio eta ikerketari dagokionez, 2 helburu estrategiko ezarri dira eta dagozkion helburu operatibo eta ekintzak ditu. Hirugarren ardatza garatzeko, aurreikusitako finantzazioaren zenbateko osoa 2.264.878,4 eurokoa da.

Taula hauetan ageri dira planari dagozkion aurreikuspenak; zehazki, 2011rako aurrekontuak, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari dagokionez, eta gainerako sailek eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak prestatutako aurrekontuak, lehen aipaturakoak kontuan hartuta. Hori guztia planaren hiru ardatz estrategikoen inguruan:

1. ARDATZA: GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO ARRETA

1.1. HELBURU ESTRATEGIKOA: IV.1.1. Jaurlaritzaren politika antolatzea genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko

- Genero-indarkeriaren biktimen arretarako kanal bateratua ezartzeko ("leihatila bakarra") baliabide informatikoa sortzea aurreikusi da.
- Kanal bateratuaren kudeaketa Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren giza baliabideen bitartez egingo da.

1.2. HELBURU ESTRATEGIKOA: Genero-indarkeriaren biktimei diren emakumei arreta osoa ematea

- Genero-indarkeriaren emakume-biktimen 24 orduko telefono



bidezko arreta-zerbitzuaren kudeaketa.

- Telefono bidezko arreta-zerbitzuaren interpretazioa 51 hizkuntzetara.
- BLZren kudeaketa.
- Web gunearen bidez ematen den arreta eta haren mantentzea Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren giza baliabideen bitartez egingo da.
- Gidaliburuak egitea.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza ekonomikoak:
- Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko ekimenak sustatzen dituzten erakundeentzako diru-laguntzak.
- Enplegu-alorreko laguntzak: enplegu-alorrean emandako diru-laguntzen zenbatekoa, 2005etik 2010eko abuztura bitartean.
- Ertzaintzaren kalitatea kudeatzeko sistema, sexu-erasoei arreta emateko.
- Ertzaintzaren kalitatea kudeatzeko sistema hobetzeko ekintzak.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak gizartean eta lanean txertatzeko ekintzak.
- Genero-indarkeriaren biktimei laguntza osoa emateko egingo den legearen aurretiko analisiak eta ekarpenak.
- Sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketei aurre egiteko protokoloak prestatzea, eta giza salerosketen biktimentzako baliabideen gidaliburua.
- Sentsibilizazio-ekintzak eta arreta hobetzea Osakidetzan:
- Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren, etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren pertsonen berehalako laguntza juridikoa emateko hitzarmena.
- Gainerako ekintzak Eusko Jaurlaritzako sail edo erakunde autonomo bakoitzaren baliabide propioekin egingo dira.

1.3. HELBURU ESTRATEGIKOA: Edonolako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eta haien mendean dauden pertsona guztien segurtasuna bermatzea

- Bikotean indarkeria-arrisku larria aurreikusteko eskala berrikustea.
- Sexu-erasoen kasuetan arreta poliziala hobetzeko ikerketa.
- Gainerako babes-neurriak Ertzaintzaren baliabide propioekin egiten dira, edota beste helburu batzuetarako esleitutako aurrekontu-sailen barruan.

1.4. HELBURU ESTRATEGIKOA: Genero-indarkeriaren kasuetan arreta- eta jarduera-protokoloak egin eta bete daitezela sustatzea

- Osasun-eremuaren koordinazioa hobetzeko aurreikusitako baliabide ekonomikoak.
- Gainerako guztia egingo da Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren eta inplikaturik dauden Eusko Jaurlaritzako beste sail eta erakunde autonomoen giza baliabideekin eta baliabide materialekin.



2. ARDATZA: ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA

2.1. HELBURU ESTRATEGIKOA: Genero-indarkeriaren biktimeizako prebentzio- eta arreta-programa integralak koordinatzea erakunde eta administrazio publikoen artean

- Genero-indarkeriaren Euskal Behatokia abian jartzeko ekintzak.
- Sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketei aurre egiteko ekimenak.

2.2. HELBURU ESTRATEGIKOA: Genero-indarkeriaren alorrean Eusko Jaurlaritzaren politika koordinatzea.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko koordinazio-mekanismoei buruzko Sail arteko Batzordearen kudeaketa. Horretarako, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren giza baliabideak eta baliabide materialak erabiliko dira.

2.3. HELBURU ESTRATEGIKOA: IV.2.3. Autonomia- eta estatu-mailako erakundeekin lankidetzan jardutea

- Genero-indarkeriaren erasotzaileak berrezteko programaren koordinazioa (Berdintasun Ministerioak jarriak).
- Genero-indarkeriaren erasotzaileak berreztea helburu duen esku hartzeko programa.
- Gainerako guztia egingo da Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzako beste sail eta erakunde autonomoen giza baliabideekin eta baliabide materialekin.

3. ARDATZA: GENERO-INDARKERIAREN ALORREKO SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA IKERKETA.

3.1. HELBURU ESTRATEGIKOA: Herritarrak genero-indarkeriaz sentsibilizatzea, lehen mailako gizarte-arazoa den aldetik

- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren sentsibilizazio-kanpainak
- Berdinsarea kanpainak
- “Seinaleak sumatuz gero aurre egin!” kanpaina, Immigrazio Zuzendaritzarekin batera
- Jardunaldiak antolatzea
- Genero-indarkeriaren EAEko urteko txostenaren argitalpena
- “Nabiko” programa
- Emakundek egindako ebaluazioak
- Berdinsarea hitzarmena
- *Gizonduz*
- Gainerako guztia Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren eta inplikaturik dauden Eusko Jaurlaritzako beste sail eta erakunde autonomoen giza baliabideekin eta baliabide materialekin egingo da.



•


3.2. HELBURU ESTRATEGIKOA: Indarkeriazko jokaeren prebentzioa hobetzea

- Genero-indarkeriaren Euskal Behatokia sortzeko eta garatzeko idazkaritza teknikoa.
 - Genero-indarkeriaren mota desberdinei buruzko azterlanak eta ikerketak
 - Osakidetzako langileen prestakuntza
 - Osakidetzako ikerketa
 - Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Masterreko ikasleentzako beka
 - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak diseinatutako prestakuntza-ekintzak, genero-indarkeriaren prebentzioa helburu hartuta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko jardunean
 - Genero-indarkeriaren prebentzioa sendotzeko ekintzak
-



VII. PLANA KUDEATZEKO EREDUA

PLANA KUDEATZEKO ORGANIGRAMA





VIII. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Bi ebaluazio mota aurreikusten dira:

- Garapenaren ebaluazioa: ebaluazio horren bidez zehaztuko da hartutako konpromisoen betetze-maila zenbatekoa den, jardueri buruzko analisi deskriptiboen bitartez. Ebaluazio hori urtean behin egingo da.
- Inpaktu-ebaluazioa: Batu egiten duen ebaluazioa da, emaitzak neurtzen dituen. Horrenbestez, ikusten da abian jarritako neurriek eta gauzatutako esperientziek ondorio positiboak ala negatiboak eragin dituzten genero-indarkeriaren prebentzioan eta genero-indarkeriaren biktimentzako arreta hobetzeko lanean. Genero-indarkeriaren bilakaera adierazten du, eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak abian jarritako ekintzen emaitzei buruzko informazioa ematen du. Ebaluazio hori 2012ko ekainean eta amaieran egingo da.

Ebaluazio horiek oinarritzko lau irizpide hauei erantzun behar diete: zer egin da? (gauzatze-maila), nork egin du? (zeharkakotasun-maila), nola egin da? (prozesuen ebaluazioa eta erakunde arteko koordinazio-maila) eta zer lortu da? (emaitzen ebaluazioa, eraginaren maila, eta inpaktuaren maila).

Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, inplikaturako eragile guztien arteko koordinazioa nahitaezkoa da.



Badakigu zein beharrezkoa den eskura ditugun baliabide guzti-guztiak modu koordinatuan emakumeen zerbitzura jartzeko ahaleginean lan egiten jarraitzea, eta horretan ari gara. Dena dela, amaitzeko, mezu itxaropentsua eman nahi dugu: aldaketa garrantzitsua gertatzen ari da; izan ere, gehiegitan, emakumeen kontrako indarkeria isilik mantendu izan da, gertatzen zena ulertzen ez zela, eta, orain, gizartean gero eta gaitzesgarriagoa da. Gure ustez egiazta daiteke gizarteak gaitz hori sufritzen duten emakumeei gero eta laguntza handiagoa ematen diela eta gaitz horren aurka gero eta jarrera argiagoa duela.

Hori dela eta, Plan hau ez da amaiera, baizik eta abiapuntua, prozesuaren zati bat; eta inplikaturik dauden eremu guztien praktikekin osatu beharko da.